ARGIA

URKULLU HIRUGARRENAREN BILA

Normalitate zaharra helburu

22-29. orriak

Iñigo Urkullu Confebaskeko Roberto Larrañaga eta Espainiako Enpresaburu Elkarteen Konfederazioko (CEOE) Antonio Garamendirekin 2019ko urtarrilean.

#2.693 | 2020 / 07 / 05 | 3,90 €

"Buru belarri segituko dut bake prozesuaren alde"

7 I JEAN-RENE ETXEGARAI

Rosa Zarra Ertzaintzak hil zuela 25 urte

30 I OROIMENA

"Ander" eta "80 egunean", harro eta apurtzaile

44 I ZINEMA

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

ARGIA

2.693 zenbakia I Uztailak 5, 2020

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
ENDIKA PORTILLO / FOKU

Iritziak

17 I ENDIKA ALABORT
18 I KATINA DOLHARE
19 I IMANOL ALVAREZ
19 I ITXARO BORDA
20 I IVÁN GIMÉNEZ

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

37 I ARGIA KOMUNITATEA
38 I BIZI BARATZEA
47 I DENBORAREN MAKINA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: NÚRIA VERGÉS
54 I BERANDUEGI

6 I **HERRIKO ETXEETAKO BOZEN BIGARREN ITZULIA**
Zuberoa, Lapurdi eta Behe Nafarroako auzapezak erabakita geratu dira ekainaren 28 gauean. Herri nagusien botoak aztertu ditugu Panorama atalean.

Elkarrizketak eta erreportajeak

9 I NET HURBIL
Frantzian gertatzen dena ez da arrazakeriaren kontrako borrokaren "amerikartzea"
Jenofa Berhokoirigoin

12 I FERMIN ARTOLA
"Greziako 120.000 errefuxiatuak Europan banatzea ez da ezer, baina ez dugu hori nahi"
Reyes Ilintxeta

22 I POLITIKA
Koronabirusa, Zaldibar eta ustelkeria kasuen legealdia

30 I OROIMEN HISTORIKOA
Egia zor diete
Inaxio Esnaola / Hirutxuloko Hitza

34 I KULTURA
"Hildako bizidunen gaua" karta-jokoa
Jon Torner

36 I EUSKARA
UEUk internet bidezko eskaintza murritzari erantzun nahi dio
Onintza Irureta

41 I KULTURA
Jon Miranderen "Haur besoetakoa"k mende erdia
Miel A. Elustondo

44 I ZINEMA
"Ander" eta "80 egunean", harro eta apurtzaile
Mikel Garcia Idiakez

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea unibertsala da eta hala jasota dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 25. artikuluan. Errealitatea ordea, oso bestelakoa da eta negozioa pertsonen oinarrizko beharren gainetik dago. Hona adibide bat. Bartzelonan, hamar familiak martxoaren 8an okupatu zuten eraikitzaile baten blokea eta 25ean kaleratu egin zituzten. Familietako batek bi seme-alaba ditu eta irudikoa horietako bat da. Haurra atarian zain, familiak bere gauzak –arropa, gehienbat– ateratzen dituen bitartean.

PAU VENTEO **AXIER LOPEZ**

ESKUBIDEA?

HERRIKO BOZAK

18

Ipar Euskal Herriko hemezortzi herritan burutu dute bigarren itzulia: Aldude, Amendüze, Azkaine, Baiona, Bidaxune, Bildoze, Bokale, Miarritze, Hendaia, Itsasu, Landibarre, Larraine, Maule, Senpere, Urketa, Urruña, Uztaritze eta Ziburu.

Mikel Hiribarren

Itsasuko auzapeza:

"Zoritxarrez joan den asteko auziak eta botere politikoen dorpetasunak behartu dute Mikel Barrios presondegira joatea. Itsasukoa da eta gure elkartasun osoa helarazten diogu".

Abstentzioa

Abstentzio handia izan da hauteskundeen bigarren itzuli honetan ere. Besteak beste, %56,7koa izan da Baionan, %41,5ekoa Ziburun eta %52,9koa Hendaian. Hala ere, lehen itzulian baino bozkatzaile gehiago izan da. Koronabirusak eragindako egoerari lotu zaio parte hartze apala.

BOB EDME / MEDIABASK

ENEKO ALDANA Ziburuko auzapez berria, bere aitarekin.

Xinaurri lanaren uzta

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Bigarren itzuli honetan ere urtetako lanaren emaitza lortu dute abertzale ezkertiarrek: Ziburun, Urruñan eta Itsasun auzapez izango dira. Bozketen lehen itzulian Biriatun eta Donapaleun irabazirik, Uztaritzen eta Baigorrin 2014ko garaipen historikoa berriz ere errepikaturik, luzatuz doa abertzale eta ezkertiarrek kudeatu herri ertain-handien zerrenda. 1960. hamarkadan sorturiko mugimendu abertzaleak bide handia egin du denbora laburrean: aurkariek baztertu eta gogorki trataturiko *Enbata zikina* izatetik, politika jokalekuko eragile nagusi izatera heldu dira. Lehenik herri ttipietan, baserri munduan eta geroz eta gehiago hirietan ere. Agintaldiz agintaldi, oposiziotik eta lurretik egin xinaurri lanaren emaitza dute ziburutar, urruñar zein itsasuarrek, duda gabe. Poz handiz garaipena ospaturik, kanpainan plazaratu alternatibaren mezua gauzatzeko lanari lotu beharko dira gaurdanik, hots, xinaurri lanarekin segitu beharko dute. Tartean, nola ez, etxebizitzaren arazoari begira jarriz –batez ere bigarren etxebizitzen gaia Urruñan eta Ziburun eta hirigintzak dakarren laborantza lurren desagerpena Itsasun–, herriko etxeen politika norabidez aldatzeko betebeharra dute. Beste zerrenda bati juntaturik, gehiengoan kokatzea lortu dute Hendaian eta Senperen. Eta oposizioan gelditzen badira ere, emaitza hobeak lortu dituzte Maulen, Miarritzen eta Azkainen.

Ekainaren 28ko bozketen beste elementu inportantea izan da Baionakoa, orain arteko auzapez Jean-Rene Etxegaraik lortu garaipen argia. Botoen %46,19 lorturik, bigarren gelditu da Henri Etxeto ezkertiarra. Honek duen jarrera antieuskaldun eta jakobinoak eragin du parte handi batean, BBE Baiona Berde eta Elkarkidea bigarren itzulian hari juntatu ahal ez izana eta abertzale ezkertiar guttik beretzat bozkatu izana. Azken aldietan "zerrenda abertzaleak" baino "kide abertzaleak dituzten zerrenda irekiak" osatu dituzte eta elkarlan horren fruitua da auzapez abertzaleen zerrendaren luzatzea. Baina Baionak argi utzi du guztiak ezkerrekoak izanda ere elkarlana eta errespetua bi aldeetarik behar dela, aliantzak posible bilakarazteko. Lehen itzulian botoen %13,12 egin zuen BBEk bigarren itzulian bakarrik ez aurkeztea erabakirik, hautetsi abertzale eta ezkertiarrik ez da egonen ondoko sei urteetan Lapurdiko hiriburuan. Aipatzekoa da Zuberoako hiriburua ezkerrera berriz itzuli dela. Botoen %38,24 bildurik, auzapezaren aulkia galdu du Mixel Etxebestek eta Louis Labadot komunista jakobinoak izanen du ardura %40,34 lorturik –Beñat Elkegarai abertzale ezkertiarrak bozen %21,41 eskuratu du, 2014ko emaitza hobetuta, herriko kontseiluan aulki batetarik bitara pasaz eta beraz, xinaurri lanean segitzeko indar gehiago bilduz–. Azken elementu bat emaitzak analizatzeko: Maulen izan ezik, abstentzioa handia izan da berriro ere hauteskunde hauetan.

Herriko etxeen osaketak argiturik, orain Euskal Hirigune Elkargokoarena dator. Uztailaren 17an aukeratuko dute lehendakaria. ●

HERRIKO BOZAK

Jean-Rene Etxegarai, Baionako auzapeza

“Buru belarri segituko dut bake prozesuaren alde”

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Beste sei urtez izanen da Baionako auzapez Jean-Rene Etxegarai. Botoen %53,81 bildurik, lehen atera da bozketen bigarren itzulian. Mezu bateratzailea eraman izanarekin lotu du garaipena. Ikustekoa orain Euskal Herrigune Elkargoko presidentearen aulkia atxikitzeko lehiari eutsiko dion ala ez. Uztailaren 17an izanen dute bozketa elkargoko hautetsiek.

Hauteskundeak irabazi dituzu. Nola baloratzen duzu garaipena?
Poztasun handiz. Emaitza argia da, joera politiko guztietako baionarrek erakutsi didate konfiantza; sei urtez Baionan eta Euskal Herrian egin lanari dagokionez, babesa argia da. Hauteskunde gogorrak izan dira, osasun krisia bizitu dugulako lehen itzulitik goiti. Pasa diren hiru -lau hilabeteak horretara bideratu ditut eta ez batere bigarren itzulira. Azken asteetan bai, kanpaina bizia izan da, baina uste dut argi gelditu dela bi zerrenden arteko ikuspegi ezberdintasuna, hiri honi eta gure lurraldeari dagokienez.

2014ean Etxeto baino 26 boz gehiago lortu zenituen bakarrik. Aldi honetan milaz gora. Nola aztertzen duzu bilakaera hau?
26 bozekin irabazteak xume bilakarazten zaitu, baina milatik gora bozen aldearekin irabazteak ez nau harroago bilakatzen eta berdin xume segitzen dut. Hiri honen aniztasun historiko, kultural, erlijiosoa eta soziologikoa ezagututa, argi da ezer ez dela posible bateratzaile izan gabe.

BBE Baiona Berde eta Elkarkidea taldean, baita abertzaleen artean ere, izan da eztabaida gogorra bigarren itzulian Etxetorekin batzeari buruz. Nola ikusi duzu kanpotik?
Errespetu handia diet boz-emailei eta noski, Baiona Berde eta Elkarkidea-ko kideei. BBEk bigarren itzulian ez aurkezteko hautua egiten zuela jakitean

DANI BLANCO

pentsatu nuen galduko genuela mundu abertzalearen ordezkaritza bat, hautetsi eraikitzailea eta jarraikia izandako Jean Claude Iriartek ederki segurtatu duena. Erabakia harturik, bi hautagaien arteko parez pareko bat izan da eta nire ustez ez da ezkerra eta eskuinaren arteko lehia izan, baizik eta Alderdi Sozialista eta Alderdi Komunistaren eta beste guztien artekoa.

Sei urteko ardura duzu berriro. Zein dira zure lehentasunak?
Politika publikoei buruzko begirada berri bat ekarri nahi dut. Osasun krisi horrek gauzak kokatu ditu oinarrizko lekuan eta Baionaren eta Ipar Euskal Herriaren geroak ez ditut COVID-19aren aurretik bezala ikusten. Antolatu beharko gara, sekulako krisi ekonomiko eta soziala pairatuko dugulako. Egoera sozial eta ekonomiko hauek dituzte politika publikoak bideratuko. Elkartasunaren izpirituak gidatu beharko gaitu.

Mikel Barrios kartzelaraturik, Jakes Esnali baldintzapeko askatasuna behin eta berriz ukaturik... egoera latza da.
Bihar (ekainaren 29a) sartuko dute kartzelara Mikel Barrios eta Mont de Marsanen izango naiz, sustengatzeko eta egoera salatzeko. Buru belarri eta tema gogorrarekin segituko dut bake prozesuaren alde. Aurreratu gara. Bi urrats aurrera, beste bat atzera, prozesu oso konplexua da bake prozesua eta apaltasun handiz aritu behar dugu horretan ere. Frantziako Gobernua geldirik dago, aurrera pausoak egin ditu baina gaur egun egoera blokeaturik dago. Mikel Barriosen kartzelaratzeak zinez goibeltzen nau eta iruditzen zait bake prozesuan benetan gibelatzen ari garela. Hori ozenki diot eta Frantziako Gobernuari ere bideratzen diot mezua.

Bigarren itzulia aitzin ez omen zenekien Euskal Hirigune Elkargorako presidentetzarako aurkeztu ala ez. Hauteskundeak bururaturik, argitu zaizu?
Ez dakit oraindik. Hiriko emaitzak jakin berri ditut eta une honetan baionarrei begira naiz. Euskal Hirigune Elkargoari dagokionez, bihar ikusiko dut, Ipar Euskal Herriko hautetsiekin partekatu beharko dut gogoeta. Dena dela, eragile izaten segituko dut buru belarri, presidente izan ala ez. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

15 minutu

ARITZ GALARRAGA

Bada teoria bat, auskalo pentsamenduaren zer guruk garatua, izena duena "15 minutuen hiria", zeinaren arabera hiri batek eskaini beharko lituzkeen gizabanakoaren ongizatea bermatzen duten zerbitzu guztiak denbora tarte horretako distantziara. Alegia, etxetik atera eta oinez –edo bizikletaz– dena, lana, aisia, jana, arta, izan beharko zenukeela ordu laurdenera. Batzuetan gertatzen da, adibidez literaturan, adibidez Ronja von Rönne idazle alemanaren *Wir kommen* nobelan –nobela txarrisimoa bestalde, ustez polimaitasunaren ingurukoa, ja, baina funtsean gazte batzuen ibilera existentzial ezdeusak biltzen dituena, eta literatura nerabea deitzen den kategoriaren bat existituko balitz, bertan bete-betean sartuko genukeena–: "Oki-dengira joan nintzen, zeina, naturala denez, paseo-distantzia osasungarri batera zegoen".

Beti bezala gizartearen aitzinamenduari ekarpenak egiteko borondate fermuarekin, urrunago noa ni, eta ez bakarrik hiria, zernahi, gauza oro 15 minutuan egiteko proposamenarekin natorkizue. Hala, lantokia 15 minutura izango bagenu, lana ere egunean 15 minutuz egin genezake –funtzionario maite, ez kexa, ikusten ari naiz zure aurpegia–; gutxi, baina minutu oso produktiboak lirateke. Di-da, 15 minutuan irakurtzeko liburuak ere argitara genitzake; halere, ondo pentsatuta, gehienak ez ote diren dagoeneko gisa horretakoak, behintzat 15 minuturen buruan abandonatzekoak. Larruketa 15 minutura luzatzea gehiegizkoa izango da, bizioa ia. Horregatik, proposatzen dudana da sexu-jardun guztia, noski urte osokoa, 15 minutuko pilula batean trinkotzea –batzuk seguru irabazten aterako direla–. Eta horiek bezala beste hamaika kontu, errenta aitorpena bete, eguzkitan egon, familia politikoa bisitatu, baina denak denbora tarte horretan, 15 minutuan, egitekoak. Hara, bizitza guztia antolatuta, minutu pare batean irakurtzen den zutabe honekin. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"BERRERAIKUNTZA PROPOSAMENEN ERDIGUNEAN EUSKARAK EGON BEHAR DU"

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

"Aski da! Euskara erdigunera" lelopean, kanpaina abiatu du EHEk. Pandemiaren krisiari aurre egiteko edozein berreraikuntza proposamenetan erabakien erdigunean euskarak egon behar duela nabarmendu du elkarteak. "Azken hamarkadetan Euskal Herriaren berreuskalduntzean aurreratutakoa irabazpidean jarri eta helburura jauzi egiteko erantzukizuna dugu. Mendekotasunetik askatu eta burujabe izateko unea dugu, euskaldun gisa eta herri gisa. Euskara itxialdian geratu ez dadin". **2020/06/25**



ANALISIA

Etxebizitza lubaki

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Normaltasun generitzon iraganera buelta egitea ezinezkoa dela, horixe osasun krisiak ireki duen hutsartetik etorkizunari behatzerakoan gehiengoak partekatu duen irakurketa. Datorrenak dakarkigunaren bueltan, kontrara, iritzi batasunik ez da: sistema kapitalistaren barrenak bere gordinean bistaratu ditugun honetan, zentraltasuna bizitzari emango dion jendarterantz bideratuko gaituen paradigma aldaketa emango dela uste duenik bada; are muturrekoagoa eta autoritarioagoa den kapitalismora bidean goazela deritzonik baden bezalaxe.

Bi tesiak mahai gainean, errealitatea horietako baterantz lerratu dadin ahaleginetan dabilenik ez da falta. 2008koa baino indartsuago ei datorren krisi ekonomikoa kantoian buelta emanda, saretzen eta antolatzen ari da herritar asko, paradigma aldaketara bidean krisia beronen erantzuleek –hots, aberatsek– ordain dezaten xede. Nola ez, indarrean den ordena soziala bere horretan mantendu asmoz, kontrako noranzkoan dihardu *establishment*ak, eta gurean beronen jagole fidela den komunikabide taldea zuhurtziaz ari da norabide horretan saka egiten. *El Correo*k etxebizitzaren aferaz informatzeko duen modua da, ziurrenik, horren adierazle nabarmenetarikoa.

Egunkariak denbora darama inurri lana egiten, iritzi publikoa jabetza pribatuaren eta aginte klasearen interesen alde agertu dadin. Urrian ikusi genuen nola kriminalizatzen zuten –beste behin– okupazioa, Portugaleten jazotako etxebizitza baten usurpazioa makiavelikoki okupazio mugimenduarekin lotuz. Gaiaren trataerak eragin zuen hainbat herritar mobilizatzea okupatutako etxebizitzak husteko –hein handi batean arrazakeriak motibaturik, gainera–. Orduko hartan hauspotutako suaren garrak bizitzeari ekin dio orain hedabideak, datorren krisia gordinen islatuko den eremuetako bat etxebizitzarena izango dela agerikoa denean. *Euskadin okupatutako etxebizitzen "gehiengo handia" mafiek kudeatzen dute* zioen iragan astean, Gueñesen herritar talde batek, Ertzaintzarekin ondoz ondo, pertsona bat okupatutako baserri batetik nola kaleratu zuten hedatu eta egun gutxira.

Testuinguru horretan ulertu behar da auzoko etxebizitza sindikatuak orain gutxi jaso duen deia: telefonoaren bestaldetik, herritar xumeen etxebizitzak okupatzea bultzatzen ari zirela leporatu zien asaldatuta batek. Etxebizitza eskubidearen defentsa usurpazioarekin nahasten zuen nonbait. Zergatik ote? Badirudi etxebizitza sindikatuek egiturazkoa den miseriari aurre egiten hasteko arrakala etxebizitzan aurkitu duten era berean, bertan aurkitu duela goi-klaseak ere miseria borrokatzera datozenak erasotzeko beste bide bat. Lehenengoek arrakala zartatu heinean, hormatu egiten dute bigarrenek, horma eraistera datorrenari zilegitasuna kentzeaz zenbait hedabide arduratzen diren bitartean. Azken horien lanaren eraginkortasunaren seinale, etxe kaleratzeak burutzen dituena (polizia-)herritarra dela geroz eta sarriago. Besteren artean, arrakala horren bi aldeen artean datza biharamun bizigarriagoaren eta bizikaitzagoaren arteko norgehiagokak. ●

EKONOMIAREN TALAIAN

Sindikatuak elkar hartuta, Osakidetzaren aurrean

JUAN MARI ARREGI

Eusko Jaurlaritza eta bera sostengatzen duten alderdiek beti haizatu izan dituzte Osakidetzaren onurak; munduko gainerako lurraldeen aurrean eredu gisa jarri izan dute. Baina Espainiako Estatuko beste tokietan bezala, Osakidetza murrizketen protagonista bilakatu da; oraindik jasaten ari garen pandemia madarikatu honek erakutsi digu hori. EAEko osasun arlo publikoan ordezkaritza duten sindikatu guztiak (Satse, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT eta ESK) elkar hartuta mobilizatu dira "Eusko Jaurlaritzaren murrizketa politika" salatzeko. Izan ere, euren ustez, "osasun publikoaren ahultze progresiboa eta kezkagarria eragin dute".

Lotsagarria da onartu behar izatea, baina pandemian frogatu da Osakidetzako lantaldea fisikoki eta psikologikoki akituta dagoela, profesional bat hil eta beste 2.000 baino gehiago kutsatu dituelako birusak, babes-neurrien faltagatik. Lotsagarria da egiaztatu behar izatea Osakidetzaren barruko kutsatzea hain handia izan dela: bertako langileek EAEko kasu guztien %18 ordezkatzen dute.

Babesik eza, enplegu prekarioak, behin-behinekotasun handia, kontratazioaren gehiegizko eta iruzurrezko erabilera, non Osakidetzako langileen % 40 aldi baterako den... Horiek guztiak Jaurlaritzak mantentzen dituen murrizketa-politiken adibide dira.

Sindikatu guztiek salatu dute egoera larri hori, eta hauteskundeak datozen honetan, Lakuak sikiera aitortu egin beharko luke murrizketa horiek egin dituela. Horrela bakarrik bideratu ahal izango ditu Europako batez bestekoaren antzeko partida ekonomikoak, eta kalitatezko osasuna ziurtatu. Horretarako, besteak beste, garrantzitsua da lantalde nahikoa, egonkorra eta duintasunez ordaindua izatea, prekarietatea eta behin-behinekotasuna baztertuz. ●

FRANTZIAN GERTATZEN DENA
EZ DA ARRAZAKERIAREN KONTRAKO BORROKAREN "AMERIKARTZEA"

Frantziako poliziaren arrazakeriaren gaia aktualitatean kokatzea lortu du Egia eta Justizia Adamarentzat izeneko komiteak. Poliziak Adama Traore hil zuen 2016ko uztailak 19 hartaz geroztik, etengabean, hiriz hiri, auzoz auzo, pertsonaz pertsona egindako jakinarazte lan alimalearen emaitza da gaur egun Frantziako kaleetan iragaiten ari dena. Borroka antiarrazistaren "amerikartzea" dela erratea, arazoaren parean itsu izaten segitzea da. Frantziako Estatuan hemeretzi lagun hil eta beste 117 larriki kolpatu zituen poliziak iaz. Eta hiri inguruetakoek eguneroko ogi dituzte polizia gehiegikeriak eta arrazakeriak.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

20.000 lagun batu ziren Parisko Auzitegiaren aitzinean ekainaren 2an eta hortik bi astetara berriz ere beste hamarnaka mila, Egia eta Justizia Adamarentzat Komitearen (*Comité Vérité et Justice pour Adama*) deiari erantzunez, Parisez gain, manifestazioak beste hirietan ere burutuz. Ezohikoa eta historikoa da Frantziako Estatuan gertatzen ari dena: arrazakeria sistemikoaren kontrako mezua periferiatik atera eta erdigunean kokatu da, hots, bazter auzoetatik hiri erdigunera pasa da, boteredunek aipatu beharrekoen zerrendan sartzeraino –izan agintari politikoena zein *mainstream* komunikabideena–.

2016ko uztailaren 19an, Val d´Oise Parisko hiri inguruko jendarmerian hildako Adama Traoren heriotzari buruz egia eta justizia exijitzen dabil kolektibo hau. Assa hildakoaren arrebak egindako lan handiari esker, anaiaren hilketaz haratago, Frantziako Estatuan den arrazakeria mekanismoa argiratzeko eta desmuntatzeko grinarekin dabiltza borrokan. Egiturazko zapalkuntza horren garro batean zentratzen da komitea: polizia indarkeriaren arrazakerian.

Bataz beste, urtero hamabi pertsona hiltzen dituzte Frantziako poliziek ala jendarmeek. Iaz hemeretzi izan ziren eta beste 117 larriki kolpatu. Datu horrek ere gora egin du COVID-19ari aurre egiteko konfinamenduan –Frantziako polizia ala jendarmeengatik, hamabik dute bizia galdu apirilaren 4tik maiatzak 10eko tarte laburrean!–.

Hilketei gehitu behar zaizkie indarkeria fisikoak, kontrolak, presioak zein irainak, eta zenbaki guztiak bat datoz ondorengoa ondorioztatzeko: *banlieue* -tan, hau da, Frantziako hiri inguruetan dira gehiengoan bideratzen. Hots, jatorriz kanpokoak –baina usu hiru edo lau belaunaldi Frantzian pasatako familiakoak– dira biktimak. "Enplegua, etxebizitza, hezkuntza ala beste, egoera kaskarra pairatzen dugu, baina guzti horrek oinarri bera du: arrazismo estrukturala dago Frantzian", azaltzen zion ARGIAri Louisa Yousfi arrazismoaren aurka dabilen gazte militanteak *Poliziaren gehiegikeriak Frantziako auzo txiroetan* erreportajean. Horri gehiturik poliziak bideratu indarkeria, egoera jasanezina leherkorra ere da aspaldian. Eskubideen Defendatzailea deitu egitura administratibo ofizialak dio: Frantziako Estatuan beltzek eta arabiarrek poliziaren partetik kontrolatua izateko hogei aldiz arrisku gehiago dute.

Arazoa ez da berria eta noski, berdin-berdin arazoarekin bukatzeko aldarria. Egia eta Justizia Adamarentzat-ek burutu bi manifestazio historikoen gisara, 1983an ere 100.000 lagun batu ziren Parisen, "Berdintasunaren aldeko eta arrazismoaren aurkako martxa" kari. Orduan ere, poliziak tirokaturik ospitalean zegoen Toumi Djaidja gaztearen ahotik atera zen protestarako deia. Marseillatik hamar bat lagun abiatu eta ehun mila batu ziren Parisko azken kilometroetan. Tartean ia 40 urte pasa dira eta arazoak bere hartan dirau. "Polizia auzitan jartzea Errepublika auzitan jartzea da. Eta Frantzian, Errepublikaren sakralizazio batean izateaz gain, arraza-osagaia erabat falta da", dio Rokhaya Diallo arrazakeriaren kontrako militante eta kazetariak. Hori horrela da, *liberté, égalité, fraternité* trinitatea itsuki errepikatzen eta iragan kolonialari amnesiko bailitzan bezala dabilen Frantzian.

OMEN, BORROKA "AMERIKARTUA"

Nahiko deigarria da *mainstream* komunikabideek Frantzian gertatzen ari denaz duten irakurketa. Salbuespenak salbuespen, aho batez dabiltza arrazakeriaren kontrako haserre popularra AEBetako George Floyd afroamerikarren heriotzari lotzen. Noski, gertakizun horrek hauspotu zuen sua –Traore ere Floyden gisara zendu zelako eta bien azken hitzak "itotzen naiz" izan zirelako–, baina pindarrak hor ziren aurretik. Tartean, konfinamendu garaian biderkatu polizia gehiegikerien bideo bortitzak sortu ezinegona.

Komunikabide hauen diskurtsoaren azterketa irakur daiteke *www.arretsurimages.net* webgune independenteko *Antiarrazismo frantsesa amerikartu al da?* (*l´antiracisme français s´est-il américanisé?*) artikulu mamitsuan. Adibideen artean, *Le Point* komunikabideko edito-

KALEAK HARTU DITU BORROKA ANTIARRAZISTAK. MILAKA LAGUN ATERA ZIREN KALERA EKAINAREN 2AN ETA 13AN, ADAMA TRAOREREN HERIOTZARI BURUZKO EGIA ETA JUSTIZIA EXIJITZEKO. TRAOREZ HARATAGO, POLIZIAREN ARRAZAKERIA ETA INDARKERIA SALATZEKO PROTESTAK IZAN ZIREN.

rialaren pasarte hau: "Arrazialistek lortu dute Frantziako egoerarako amerikar irakurketaren inposatzea, eta sinestaraztea Minneapoliseko polizia txuri batek odol-hotzean hildako George Floyden gisako heriotzak eta gutxiengoen eskubideen zangopilatze sistematikoak ohikoak liratezkeela Frantzian. Tetelekeria". Borroken "amerikartzeko" joera hori ez dute berria eta jada genero eta sexu identitateen aldeko borrokentzat ere berdina leporatzen zuten urte batzuk lehenago.

Hamarkadetan zehar martxan den borrokaren osagaiei ez begiratzeko eta AEBetako aktualitateari lotzeko joerak Frantziako Estatuak goraipatzen duen "unibertsalismoarekin" lotzen ditu artikuluak. Modelo unibertsalistaren arabera, guztiak gara herritar eta frantses eta edozein izanik ere gure berezitasun kulturalak, eskubide berak ditugu. Nonbait, zentzu berera doaz Emmanuel Macron presidenteak ekainaren 15ean plazaratu zituen hitzak. Bi egun lehenago Parisen egindako manifestazio historikoa ez bazuen zuzenki izendatu ere, arrazismoaz mintzo zela, ondokoa adierazi zuen: "Separatismorik" eta "komunitarismorik" ez duela onartuko. Botereare n logikari segi, unibertsalismoan ez dagoelako bereizkeria estrukturalik eta beraz, elkarbizitza hau kritikatzen dabiltzanak berez multzoa hautsi eta bereizi nahian dabiltzalako. Irain gisa hartu zituen adierazpen hauek Egia eta Justizia Adamarentzat komiteak.

Bazter hirietako herritarrek jasandako gehiegikeria salatzerakoan "ez dago kerik surik gabe" ukan dute sistematiko erantzun gisa. Postura hori oraindik presente baldin bada ere, gutxituz doa. Sare sozialei esker, lekukoen bideoak hor direlako froga gisa, eta nola ez, bazter hirietan burutu ohi zena hiriguneetako errealitate bihurtu delako. Jaka Horiek zein mugimendu sozialek jasandako errepresioa oso bortitza izaten ari da Frantzian.

"Borroken konbergentzia" ez baina "ukaldien konbergentzia" izendatzen du egoera hau Eric Fassen soziologoak: "Polizia indarkeriaren esperientzia partekatua". Salbuespenak salbuespen, bi mugimenduen bateratzerik ez da eta egitekotan, –bai ala bai– zuri gisa dituzten pribilegioei buruz beharko dute gogoetatu Jaka Horiek. Pobrezia, diskriminazioa eta polizia indarkeria biek pairatzen badute, sistema arrazializatuan ez direlako alde berean. ●

Fermin Artola

KONFINAMENDUAN ZAPOREAK-EKO BOLUNTARIO

GREZIAKO 120.000 ERREFUXIATUAK EUROPAN BANATZEA EZ DA EZER, BAINA EZ DUGU HORI NAHI

Martxoaren 1ean heldu zen Fermin Artola Greziako Lesbos irlara eta egun horretan berean, Moriako errefuxiatuen kanpalekutik janaria banatzetik bueltan zetozela, ultraeskuindarren erasoa jasan zuten. Astebeteren ondoren COVID-19aren krisialdia hasi eta hiru asteko egonaldia lau hilabetekoa bihurtu da.

REYES ILINTXETA

Iruñeko Udal Ikastola aitzindariaren sortzaileetako bat zara eta maisu onaren ospea duzu. Zer dela eta zure ustez?

Ez dut batere sekreturik. Hori bai, ez dut inoiz arazorik izan ikastolara joateko. Ikasleekin aritzeko lana oso gustukoa nuen. Atal administratiboa eta bilerak, aldiz, ez horrenbeste.

Irakasle gisa lanean nenbilela, Historia ikasi nuen Gasteizen eta aukera izan nuen Bigarren Hezkuntzara pasatzeko. Zalantzan ibili nintzen, baina pentsatu nuen Lehen Hezkuntzan ikasleek oraindik maite gaituztela eta Bigarren Hezkuntzan ez nuen horren garbi.

Batzuek diote ikasleen laguna izan behar duzula, baina nik uste dut ezetz. Gu irakasleak gara, baina horrek ez du esan nahi harremanetarako goxotasuna alde batera utzi behar denik. Garrantzitsuena entzutea da. Ikasle bakoitzak baditu bere behar bereziak eta radarra piztuta eduki behar duzu erantzun ahalik eta egokiena emateko. Horrek esan nahi du une batean ikasle baten aldamenean egon behar duzula zerbait azaltzeko edo zerbaitez hitz egiteko edo eskua bizkarrean jarri eta lasaitzeko, besterik ez. Halako hurbiltasuna behar da.

Asko aldatu da irakaskuntza?

Gizartea da asko aldatu dena eta horrekin batera irakaskuntza. Nik esango nuke zerbait ziklikoa dela. Azkeneko urteetan berrikuntza bezala saltzen zizkiguten hainbat elementu orain dela 35 urte jarri ziren martxan. Aldatu dena, batez ere, familiekiko komunikazio mota izan da.

Lehen, ez dakit egoera politikoagatik edo zergatik zen, baina harremana estuagoa zen. Guri laguntzeko prest zeuden. Orain distantzia gero eta handiagoa da. Agian irakaskuntzari eskatzen zaiona gehiegi da. Irakaskuntzak ez du

mundua aldatuko, aldatuko du zerbait, baina denok bat ez bagatoz, ez dugu ezer egingo.

Horretaz gain, esango nuke garai batean egiten genituen gauza batzuk gaur egun astakeriatzat hartuko genituzkeela. Ni joan izan naiz 30 ikaslerekin, motxilak hartuta, trenez Uharteraino. Handik San Migelera oinez igo eta bi egunez aterpetxean egon ondoren Iruñera itzuli. Ni bakarrik. Edo Luzaidetik Iparralde osoan barrena Donostiaraino bizikletaz 60 ikasle eta guraso batzuen laguntzarekin, errepide nazional-etik. Gaur egun pentsaezina litzateke, baina beste garaiak ziren.

Erretiroa hartuta, Benidormera joan beharrean, Lesbosera joan zara. Zergatik?

2018ko udan Sarajevon nengoen eta tren geltokian ikusi nuen boluntario talde bat janaria banatzen errefuxiatu batzuei. Egun horietan iritsi zitzaidan erretiroa onartzen zidateneko berria eta pentsatu nuen, denbora izanda, horrelako zerbait egiten ahal nuela nik ere. Banekien Zaporeak existitzen zela eta harremanetan jarri nintzen haiekin. Otsailean deitu zidaten eta martxoaren 1ean iritsi nintzen, printzipioz hiru astetako lan txanda egiteko Lesbos uhartera.

Ni izan nintzen hona iritsitako azken boluntarioa koronabirusaren krisialdia sortu baino lehen. Grezia osoa berehala itxi zuten eta gure sukaldean Zaporeakeko bi boluntario, sukaldaria eta koordinatzailea gelditu ginen. Erabaki zen beste inor gehiago ez etortzea, handik kanpamentura birusa ez ekartzeko. Morian bizi diren errefuxiatu batzuen laguntzaz jarraitu dugu lanean lau hilabete hauetan.

Gogorrena erabateko blokeoaren garaian izan zen: hilabete eta erdiz zazpi pertsonaren artean eguneko 2.200 bazkari ematera iritsi ginen. Lan ikaragarria.

Orain 1.900 ematen ditugu egunean eta deseskalada ere hasi da, nolabait. Nahiz eta kanpamentua oraindik itxita egon, guretzako kontrolak arinagoak dira orain eta laguntzaileen bila joan gaitezke. Orain berriro hamabost pertsona arteko taldeak ari gara lanean eta eramangarriagoa da dena.

Aukera izan zenuten itzultzeko?

Zaporeak harremanetan jarri zen Eusko Jaurlaritzarekin eta Espainiako Enbaxadarekin eta esan ziguten geuk erabakitzeko. Astero baziren enbaxadak antolatutako hegaldiak eta eskaini ere egin zizkiguten, baina etxean itxita egoteko ez zuela itzultzea merezi pentsatu genuen. Zalantza izan genuen, hemen COVID-19a sartuz gero sarraskia brutala izan zitekeelako, egoera oso gogorra delako, baina hori gertatzekotan zerbait pentsatuko genuen. Suertea izan dugu eta ez naiz damutzen. Hemen oso kasu gutxi izan dira, kanpotik ekarriak eta oso ongi kontrolatuak, antza. Itxura denez Morian ez

Fermin Artola Urmeneta

LAKUNTZA, 1958

Irakasle ikasketak egin ondoren, 20 urterekin hasi zen maisu lanetan Iruñeko Udal Ikastolan, sortu berritan. 39 urte eta egun batez aritu ostean, erretiroa hartu zuen duela urte eta erdi pasatxo. Zaporeak GKEarekin Lesbos uhartera joan zen martxoaren 1ean eta han gelditu da lau hilabete.

da sartu. Batzuek esaten dute agian kasuak ez direla detektatu eta pneumonia normaltzat hartu direla, baina nik uste dut koronabirusa izan balitz ikaragarria zatekeela. Mugarik Gabeko Medikuek ospitale berezi bat zabaldu dute arnasketa arazoak dituzten pertsonak artatzeko, baina oso pertsona gutxi dira hemendik pasa direnak, sei, bost, atzo hiru... Guk kopuru zehatza ezagutzen dugu egunero janaria eramaten diegulako.

Nolakoak dira bizi baldintzak?

3.000 pertsonarentzat prestatuta zegoen kanpalekuan 20.000 inguru bizi dira egun. Txorrota bat dago 1.300 biztanleko eta komun bat 200 pertsonentzat. Xaboirik ez dago. Moira muino batean dagoen esparru oso txikia da, hormaz inguratua. Barruan badira kutxa moduko batzuk, bungalow antzekoak, baina hori luxuzko zerbait da. Gehienak dira dendak edo plastikoz eta egurrezko paletez egindako txabolak. Bakoitzean sei edo zazpi pertsona bizi dira pilatuta. Bideak lurrezkoak dira eta ur beltzak (fekalak) alde guztietatik dabiltza.

Kontatzen didate ilundutakoan emakumeak ez direla ausartzen beren txabolatik ateratzen komunera joateko bortxaketa ugari egiten direlako. Horregatik haurren pixoihalak erabiltzen dituzte. Kanpalekua erabat itxita dago orain. Hirira ezin dira etorri arrazoi zehatz batengatik ez bada: medikura joan behar dutela edo farmaziara, bestela debekatuta daukate handik ateratzea. Eta mantendu horrela 20.000 pertsona! Liskarrak ikaragarriak izaten dira.

> ***Gogorrena erabateko blokeoaren garaian izan zen: hilabete eta erdiz zazpi pertsonaren artean eguneko 2.200 bazkari ematera iritsi ginen. Lan ikaragarria"***

Errefuxiatu gutxi batzuek Mitilene hiriburuan pisu bat alokatuta dute, baina hori oso zaila da, jendeak ez dielako alokatu nahi izaten. Egoera legala ere oso zaila da. Asko elkarrizketa baten zain daude kanporaketa edo asilo egoera ematen ote dieten jakiteko.

Moria bisitatu nuen lehen aldian ikusi nuen jendea noraezean zebilela leku batetik bestera eta "etorkizun beltza" pentsatu nuen. Eguna joan egun etorri horrela. Ezagutzen ditudan batzuek lau eta bost urte daramate hemen, ez aurrera ez atzera.

Haur eta gaztetxo asko ere badago. Guk Mitilenetik gertu dagoen adingabeen zentro batera eramaten dugu janaria. 23 adingabe daude hor kanpin batean, 12-16 urtekoak. Bakarrik daude eta ez dakigu nola lortu duten

honaino iristea, baina badirudi haiek esperantza gehiago izan dezaketela hemendik ateratzeko. Eta haien artean 4 urteko ume bat dago, familiarik gabe. Harrigarria. Hemengo bizimodua oso latza da haientzat. Duela gutxi 6 urteko neskato bat erreta hil zen Morian bere etxolak su hartu zuenean.

Nolakoa izan zen martxoaren hasieran jasan zenuten ultraeskuindarren erasoa?

Hori izan zen hona iritsitakoan nire lehenbiziko esperientzia. Gero aste normal bat izan genuen eta jarraian koronabirusa. Erasoa azaltzeko gauzak bere tokian jarri behar dira: Lesbos irlak Gipuzkoako tamaina du, 80.000 biztanle eta 20.000 errefuxiatu. Populazioaren bosten bat errefuxiatuak dira, baldintza latz ikaragarrietan bizi direnak. Uharterako presio handia da horri aurre egitea. Zer gertatzen da? Ultraeskuindarrek aprobetxatu egiten dutela jendearen egonezina eta gogor jotzen dutela errefuxiatuen aurka eta baita Gobernuz Kanpoko Erakundeen kontra ere. Grezian egun bada eskuindarren mugimendu indartsua.

Egun hartan, janaria banatzetik bueltan gentozela, jende talde bat gure furgoneta eta kotxera hurbildu eta oihuka eta kolpeka hasi ziren. Ibilgailuak birrindu zizkiguten. Furgonetan geundenok lortu genuen handik ateratzea, gurpilak zulatuta, baina autokoak aterarazi eta jipoitu zituzten. Lesbosek beti izan du tradizioa jendea onartzeko eta laguntzeko. Lehenengo siriarrak iritsi zirenean jendeak denetik ematen zien, baina une honetan kopuruak izugarriak dira eta egoera kontrolaezina. Moriako kanpamentuak duen soluziobide bakarra, nire ustez, ixtea da. Hustu eta itxi. Beste aterabide guztiak adabaki txikiak besterik ez dira.

Zer harreman mota duzue iheslariekin?

Poliki-poliki bazoaz jendea ezagutzen. Badugu errefuxiatu talde bat guri laguntza ematen diguna egunero. Haien bila joaten gara goizero Moriara eta hirira eta sukaldean aritzen dira gurekin egun osoa. Beren bizitza kontatzen digute eta harreman afektiboak sortzen dira. Gure jendea da. Laguntzaileak Moriara bueltan eramaten ditugunean pena izugarria ematen digu han utzi behar izateak.

Zer dute buruan? Alemaniara iristea?

Orokorrean, nik ezagutu ditudan gehienek bai. Baten batek Kanada edo Zeelanda Berria aipatzen ditu edo hotza egiten duen tokiren bat: Islandia, Finlandia... Baina hori oso atipikoa da. Gehienek badute familia, lagunak edo kontaktuak Alemanian. Gainera, badakigu nola saltzen diren askotan gauzak. Hemengoek ikusi dute nola bizi diren bere herriko horiek Alemanian eta nik esango nuke idealizatuta dutela topatuko duten egoera. Nahiz eta Morian egon, egoera basati batean, haiek ere badituzte beren ile mozketa bereziak edo arropak, adibidez, eta argazki horiek bidaltzen dizkiete bere senitartekoei Azerbaijanera, Iranera edo Nepalera; baina agian, argazki horietako irudiek ez dute islatzen benetan bizi duten miseria. Europara iritsita, supermerkatu bateko atean dirua eskatzea da etorkizuna? Badakigu zerekin topatuko diren, baina kontuan hartu behar dugu beste egoera askoz txarrago batetik datozela.

Dena den gu ere oso latzak gara. Askotan konturatu edo konturatu gabe keinu xenofoboak izaten ditugu. Pentsa Iruñean zenbat kostatzen den halako pertsonei pisu bat alokatzea.

Europaren errefuxiatuekiko jarrera ikusita, auzo lotsa sentitu duzu inoiz?

42.000 pertsona daude Greziako irletako kanpalekuetan eta 120.000 inguru Grezia osoan. Pertsona kopuru hori Europa aberats osoan zehar banatuta ez da ezer. Libanon ehunka mila errefuxiatu daude, askoz txikiagoa izanda ere. Baina europarrok ez dugu hori nahi: "Armeniar eta siriar zikin horiek hobe ez badira irla

Azken hitza

EGUNEROKO LANA

"Guk Morian osasun behar bereziak dituzten pertsonei ematen diegu jaten, 1.000 bat pertsonari. Honetaz gain, eskolara, adingabeen zentrora eta beste elkartasun lanak egiten ari diren hainbat boluntariori, ur hornidurarako lanean ari den holandar talde bateko kideei adibidez.

Banaketa tokatzen den egunean, 9:00etan hasi eta 19:00etan itzuli, bestela 18:00etan.

Oso lan nekagarria da kopuruak itzelak direlako: 200 kilo oilasko zatitu behar dituzu edo zortzi tipula zaku txikitu, 25 kilo txitxirioz betetako lapikoak mugitu eta gero hori dena garbitu... Lan itzela da, baina oso gustura egiten dugu".

horretatik ateratzen". Eta dirua emango diogu Greziari aska ez ditzan.

Auzo lotsa sentitzen dut Europako, Mendebalde osoko politikarien diskurtsoekin. Jendearen jarrera, zorionez, bestelakoa da. Dena den, errefuxiatuena sarraski isila da. Epe motz eta ertainean ez du konpontzeko itxurarik. Agian koronabirusak Morian gogor jo izan balu, Europan kanpalekuetarako konponbide bila hasiko ziren. Baina jendeari bost axola zaio zer gertatzen den hemen. Jendea ez da enteratzen eta ez du enteratu nahi. Sinplekeria batzuei garrantzia ematen diegu eta benetan garrantzia dutenak askotan ahazten ditugu.

Orain arte gaitzak ez du indar handirik izan hemen. Grezian lehenbiziko kasuak agertu zirenetik itxi zuten dena eta norabait joateko baimena eskatu behar zenuen posta elektronikoz. Baiezkoa ematen zizutenean joan zintezkeen lanera, erostera edota kirola egitera. Lesbosen beldur handirik ez da izan, Atenasen gehiago nabaritu da. Hemen errefuxiatuen esparrua itxi zuten eta kito.

Nola dago orain zuen biltegia?
Ni iritsi nintzenean despentsa goraino betea zegoen, baina dena amaituz joan zen. Ekainaren hasieran kamioia berriro iritsi zen Euskal Herritik, baina sumatu zen itxialdia dela eta janaria biltzeko hainbat ekitaldi bertan behera geldi-tu zirela. Janari freskoa hemen erosten dugu.

Erabilera bakarreko ontziak erabiltzen dituzue ezinbestean?
Erabateko desastrea da. 1.900 aluminiozko ontzi eta 1.900 plastikozko koilara. Atzo iritsi zitzaizkigun metalezko koilarak eta hemendik aurrera pertsona bakoitzak berea izango du, eta plastikozko gehiago ez dugu erabiliko. Agian plastikozko beste jaki-ontzi mota bat erabil liteke baina ezin ditugu jaso eta, gainera, garbitzeko eta desinfektatzeko modurik ez dugu.

Zer zapore du Moriako janariak?
Goxoa, baina espezia piloarekin: kanela, piper hautsa, currya... Gureak baino gustu indartsuagoak dituzte. Ematen badizkiegu guk Euskal Herrian jaten ditugun barazkiak, adibidez, ez dituzte nahi.

Gure laguntzaileak toki askotakoak dira: Turkmenistangoak, Irangoak, duela gutxi hasi zen Kongoko neska bat... eta guk egiten dugun janari mota nahasketa bat da gehienen gustukoa izan dadin eta ahalik eta orekatuena, noski.

Uztailaren hasieran itzuliko zara etxera. Zer egiteko asmoa duzu?
Oso-oso nekatuta nago. Azken egunetan irla ezagutzeko mugituko naiz pixka bat eta gero atseden hartzera etxera itzuliko naiz. Normalean alde egiten dut beti sanferminetan, baina aurten geldituko naiz. Denbora pixka bat beharko dut hau dena digeritzeko. ●

Lan erreforma ala merkatuen arauketa

ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Ostiral arratsaldea da, eta telefono dei bat jaso dut. Enpresak ERTEa aplikatuko duela esan dit: negoziatzeko betebeharra dagoela esan diot. Enpresari informazioa eskatzeko esaten diot. *Ad hoc* langile komisio bat osatu behar dute, ez baitago sail sindikalik ezta enpresa komiterik. Langileek 7 egun izango dute enpresak aipatzen dituen arazoen jatorria aztertzeko eta aurkeztutako proposamena neurtzeko. Langile hauen artean beldurra eta ziurgabetasuna nagusi da. Orain behin behineko neurri bat da, baina etorkizun laburrean, zein izango da enpresaren neurria? Enpresak kaleratzen baditu, langabezi saria murritzagoa izango dute. Eta hartzekodunen lehiaketa bat bada? Zazpi egun hau guztia kudeatzeko, lan egiteko eta erantzun bat emateko. Behin behineko langileek badakite ziurrenik zein izango den haien etorkizuna: kontratua laster bukatuko zaie, nahiz eta "produkzio arrazoiengatiko" kontratua iruzurrezkoa zen. Euren kontratua berritzeko itxaropena galdu dute. Beste kasu batzuetan, ez dira ezta formalitateak mantendu, neurria aplikatu dute negoziazio barik.

Euskal Herriko Unibertsitatean, lan merkatua nola funtzionatzen zuen irakasten ziguten. Oreka zen punturik hoberena, "oreka walrassiarra": lan eskariaren eta lan eskaintzaren kurbak gurutzatzen ziren puntua zen hori. Gero, azaltzen ziguten, sindikatuak agertzen ziren, lanaren prezioa oreka horretatik urrunduz. Baita gutxieneko soldata, lanaren prezioa era artifizial batean handitzen zuelako ere. Hori zela eta, langabezia sortzen zen. Hori zen arazoa, merkatuak prezioa definitzen ez zuenez, langabezia sortzen zen. Ikasle nintzenean erdeinagarri iruditzen zitzaidan azalpen hau. Gaur egun badakit ekonomia neoklasikoan oinarritzen dela.

> Espainiar Erresuman beste lan erreforma bat mahaiaren gainean dago, nahiz eta zein norabide hartuko duen argi ez dagoen

Ohituta gaude lan eskubideen urraketak pairatzen (nork ez du ez-betetze bat jasan?), baina azken hiru hilabeteak tsunami handi baten antzeko kolpea izan dira: ERTEen kasua izebergaren punta da. Zentzu horretan, datorren garaia gogorra izango da eta ez dirudi egoera leunduko denik. Ehunka milaka langilek badaki beren lanpostua kolokan dagoela, eta ez dagoela lan araudirik enplegua mantentzeko lagungarri izango dena. Gainera, oreka walrassiarraren fundamentalistak (merkatuaren legeak arautu behar du) lan gogorra egiten ari dira, ekonomia gainbehera baten aurrean malgutasun gehiago exijituz. Beraien buruan irudikatzen duten lan merkatua ez da inon existitzen: botere harremanak dira lana arautzen dutena eta, hori, ez da ekonomia eta enpresa fakultatetan irakasten.

Enpresek, botere harreman hori zein den oso ondo ezagutzen dute, hasieran aipatutako kasua horren adibide argia da. Gainera, lan legediak ez du asko laguntzen. Espainiar Erresuman beste lan erreforma bat mahaiaren gainean dago, nahiz eta zein norabide hartuko duen argi ez dagoen. Hala ere, gai honen inguruan politikariek egin dezaketen araudi berrituan, itxaropen gutxi.

Lan baldintzak hobetzeko lehenbiziko pausua botere harreman hori langileen alde makurtzea da. Behin-behinekotasunaren aurka egiteko, langile prekarioen egoera era efektibo batean babestuz, lan eskubideak defendatzeagatik langilea gerizatu behar da, eta iruzurrean egindako kaleratzea baliogabetu. Labur esanda, edozein lan erreforman, indarrean dauden botere harremanak hautsi beharko dira, ahula denaren alde.

Ekonomia, ekonomia politikoa baita, pertsonen eta bizitzaren alde eginez, ez kontrara. Lan harremanen arauketa ikuspegi beretik egitea funtsezkoa dugu. ●

Barbarismo berriez



PAULA ESTÉVEZ

KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Maiatzaren 14ko *Herria* astekariaren editorialean, Jean-Louis Harignordoquy "*Laka*"-k idatzi du damugarri zaiola "konfinamendu" hitza hain errazki erabilia izanik euskaraz, besteak balitezkeelarik, hala nola "etxealdia", "hetsialdia" edo "itxialdia", "bakartzea", "berrogeialdia", "etxe zokoratzea". Hain zuzen ere, bizi izan dugun –eta oraino bizi dugun– ohiz kanpoko egoerak hiztegiaren berritzera bultzatu du jendartea. Euskaldunok arrangura linguistikoa ukan dugu, zilegitasun osoz: euskaraz, eta ahalaz mailegurik egin gabe, nola izendatu salbuespenezko gertakaria?

Beste mintzairetan ere garatu da hiztegi berri bat, ezohiko praktikak izendatzeko. Etxealdia bururatu orduko, adibidez, frantsesez azkar zabaldu dira "*présentiel*" eta "*distanciel*" hitzak lan munduaren eremuan, eta irakaskuntzan ere. Ikastetxera itzuli garen irakasleok klaseak kudeatu behar izan ditugu fisikoki eta birtualki: bi modu horien izendatzeko, "*le présentiel*" edo "*en présentiel*", eta "*le distanciel*" edo "*en distanciel*" adierazpideak erabili ditu administrazioak, eta langile anitzen mintzaera kutsatu dute hitz horiek. "Présentiel" XVIII. mendean agertzen da frantsesez, eta "distanciel" hitza, berriz, XIX.ean: ez dira hitz berriak, baina bat-batean era berrituan erabili dira adjektibo horiek izen edo adberbio gisa.

Bizkitartean, biziki argi da osasun krisiaren hasieratik agintariek lengoaiaren bidez bideratu nahi izan dituztela bai jendearen beldurrak, bai beren buruei buruzko gizarte konfiantza. Baina hitzaldi ezegoki edo inkoherenteen gibelean gezurra eta funtsezko errakuntza nabari zaie. Testuinguru horretan, hizkuntza frantsesean indarrez sarrarazi nahi dituzten delako neologismoak susmagarriak zaizkit.

Ez naiz hizkuntzalari aditua, baina gogotik erran nezake "présentiel" eta "distanciel" hitzak izen edo adberbio gisa erabiltzea barbarismoa dela frantsesez. Iruditzen zait lan munduan inposatu direla alor zientifiko eta teknikoan –*el* atzizkiarekin errazki sortzen diren adjektiboen antza dutelako, hain zuzen ere sinetsarazteko bi kontzeptu serios eta sakon direla, bat bestearen baliokide: irakaskuntzan, adibidez, irakasteko bi modu balitezke, bat fisikoki klasean, ikasleekin harreman zuzenean, eta bestea, lehenaren hein berekoa, etxetik ariz, interneti esker, kontakturik gabe. Baina ez! "Présentiel" eta "distanciel" ez dira bi kontzeptu pedagogiko: lehenak egoera normala adierazten du (jendetasunezko harremana, talde izpiritua eta emulazioa konnotatzen du), eta bigarrenak, berriz, behin behinekoa beharko lukeen aterabide eskasa, jendetasun ukatzailea. Hitz horien itxurazko parekotasunari esker sistema erotu eta ahulduak frogatu nahi du normaltasunaren eremua berak duela finkatzen, eta errealitatea berak duela meneko.

1984 eleberrian, Orwellek asmatu zuen etorkizunean hitzen suntsiketa hartuko zuela xede Estatuak, jendearen gogoetatzeko gaitasuna murrizteko: lehenik adjektiboak eta aditzak errautsiz, ondotik "alferrikako" izenak. Beldur naiz ez ote zaien hori gertatzen frantsesdunei, zorigaitzeko ideologia nagusiak adberbio eta izen hutsalak erabiltzera bortxatzen dituenean, adjektiboak eta aditzak baliatu beharrean.

"Konfinatu" kalkoa geure egitea damugarri zait eni ere, are gehiago "presentzialean" eta "distantzialean" funts gabeko hitzak, botere politikoak modu lanjerosean manipulatu frantses pobretu baten eraginez. ●

EAJ eta fagozitosia

IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Fagozitosian, zelulak molekula bat mintzez inguratu eta irentsi egiten du. Analogiaz, esan ohi da mugimendu sozial baten aldarrikapena gizartean zabaldu eta onartu samarra denean, sistemak fagozitatu ohi duela. Horri sistemaren fagozitosia esaten zaio. Fagozitosiaren xedea, esan gabe doa, aldarrikapena eta mugimendua bera neutralizatzea da, ahultzea deuseztatzeraino; hots, edukiz hustu ahalik eta gehien, eta, ahal izanez gero, izatea bera eragotzi.

Nik ez dakit gurean EAJk egiten duena zehatz-mehatz fagozitosia den; baina oso antz handia dio. Izan ere, edozein herri mugimenduk edo elkartek kontuan hartzeko moduko sona edota ahalmena lortzen duenean, alderdiak prozedura bera erabiltzen du beti.

1. Lehenengo, adeitsu hartzen du, aldarrikapenok entzun, bai eta jaramon egin ere (neurri batean baino ez, jakina), tartean botoak egon daitezke-eta.

2. Behin elkarrenganako sasi konfiantza lortuta, apurka-apurka mugimendua kontrolatzen ahalegintzen da; nahi ez duenak bezala, lar nabaritu barik, baina modu eraginkorrean.

3. Estrategia gaizki ateraz gero, hots, erakundea ez badago prest erabilia izateko, hirugarren faseari ekiten dio: egitura paraleloa sortu, eta berori hauspotu eta bultzatu.

4. Horrekin batera, nola ez, jatorrizko mugimenduari imajina litezkeen oztopo guztiak jartzen dizkio (ez ahaztu, azken helburua desagerraraztea dela), ekonomikoki itoz (diru-laguntzarik ez, publizitaterik ez...) eta ohiko jarduera eragotziz (legez kanpo utzi, baimenak ukatu, izen ona zikindu...).

Adibideak, erraz aurki ditzakegu. AEKrekin gertatu zen, Joseba Arregi Kultur sailburua zenean batez ere; eta HABE sortu zuen. *Egin*-en kontra aritzeko, *Deia* atera zuen. *Hemen*-en aurka, *Eguna*. Egunkariarekin ere ahalegindu arren, zorionez, planak porrot egin, eta ezin izan zuen buruan zerabilen egunkari alternatiboa argitaratu. LGTB+ mugimenduarekin prozedurari jarraitu dio lerroz lerro eta fasez fase, azkenean Ortzadar sortuz…

Jubilatuen elkarteekin ere egin berri du. Itzela da mugimendua, tsunami baten modukoa. Euren aldarrikapenek oihartzun izugarria lortu dute; Bilboko Udalaren aurreko elkarretaratzeen isla izan da estatuko komunikabideetan, bai eta kanpokoetan ere… Bada, EAJ bere kordako elkarteren batzuekin bildu eta hasia da jatorrizko mugimenduaren kontra oldartzen. Udaletxeko eskaileretan batzea debekatzeraino heldu da, zentzugabeko aitzakia lotsagarriak erabilita. ●

Manifak

ITXARO BORDA
IDAZLEA

Hiru hilabete etxekoturik egon ondoan, jendeengan, plazara ateratzeko halako gutizia pizgarria sentitzen da. Hasieran distantzia soziala deitzen zuten egikerak zedarritu bakartasuna jasanezina izan da askorentzat. Bizidunak, landareak, abereak eta humanoak, nola ez, sortzetik beretik, izaki sozialak dira, beren on eta gaitzekin. Sendia hurbilaz eta tribuaz harago bildu nahi dugu gainerakoekin, pataskatzeko, maitatzeko edo xede kolektiboak aitzina eramateko.

Munduan zehar, ikusten denez, bereziki Georges Floyden Minneapolisko hilketa salatzearen karietara, jendeak karriketan dabiltza, multzoan, maskarak soinean, edo gabe, trinko eta tinko, polizia ezberdinei buru eginez. Elkarrekin izateko, ibiltzeko eta gas negargileen azpian ezezagunen artean sustatzeko gogoa dagoela ezin uka, masa anonimotan urtzeko bezala, hala nola tabakoa erosteko Dantxarinean edo Donostiako parte zaharrean pintxoak dastatzeko.

Beldur gara musukoak ez ote diren gure ele-zaparradak mugatuko dituzten burdinazko idi-muturretakoak bilakatuko. Ez dugu isolatuak egon nahi, hori ez, saldoan baizik, batzuetan zaila bada ere, bata bestearen bihotz taupak entzuten jarraitzeko. ●

Zahar-etxeen negozio beltza

IVÁN GIMÉNEZ
KAZETARIA

Nafarroa ez da berezia, beste lekuak bezalakoa da. Hemen ere, COVID-19ak zahar-etxeetan egindako sarraskia izugarria izan da: hildako guztien %80 zahar-etxeetako agureak izan dira, ia 450 pertsona. Zentro batzuetan, egoiliarren %40 hil da. Hala eta guztiz ere, beste probintzietako datuak oso antzekoak dira. Nafarroa, beraz, ez da oso ezberdin, oso arrunta baizik. Arrunta, baina larritasun beldurgarri honetan, dena den.

Nafarroan ez daukagu Unai Rementeria bat, eta orduan ez dugu Nagusi Intelligence Center bat izango, eta ez gara sartuko *silver economy* berri horretan. "Nagusientzako teknologia berriak eta zahartze-prozesuaren erronkari aurre egiteko proiektuak dira, jarduera ekonomikoa –hots, etekinak– eta enplegua sortzeko asmoarekin". Horretan omen dabiltza Bilbon (non eta BBVA dorrean), eta agian horregatik Rementeriak zahar-etxeetako hildakoen kopurua estali izan du. COVID-19ak negozioa arriskuan jarri du, dirudienez.

Nafarroan, oraingoz, ez gara horraino iritsi: datuak hor daude, denon begietan. Eta anglizismo katetoak ez ditugu oraindik gehiegi erabiltzen. Eskubide Sozialen (izen ederra, benetan...) kontseilariak jarduera ekonomikoa (hots, enpresentzako irabaziak) ez du aipatzen zahar-etxe berriak iragartzerakoan, negozioa oso modu agerian ez erakusteko ahaleginean, ziurrenik.

> Adavir (Decathlon, Leroy Merlin eta Alcampo-ren jabea), Domusvi (ICG arrisku-funtsarena), Idea (Opus Dei) eta abar… Eta multinazionalak zergatik sartzen dira negozio honetan?

Hala ere, ez gara oso ezberdinak. Irakurri dugun azken titularra: Nafarroan sektore honek 100 milioi euro mugitzen ditu urtero. Eta pandemia iritsi baino lehen Nafarroako Gobernuak kontatu zigun Iruñerrian bost zahar-etxe berri eraikiko dituztela hurrengo hiru urteetan. "765 plaza berri eta lurralde-oreka ekarriko dizkigute", esan zuen Eskubide Sozialen (izen ederra baino ederragoa) kontseilariak. Baina nork demontre ekarriko dizkigu horrelako onurak?

Adi irakurri behar da galdera garrantzitsuenari erantzuna aurkitzeko. "Sektorean eskarmentua daukaten entitateek". Baina... zahar-etxe berri hauek ez al dira publikoak izango? Eta zer egiten du Eskubide Sozialen (ze izen jatorra) kontseilariak proiektu hau aurkezten?

Ba ez, ez dira entitateak izango, multinazionalak baizik: Adavir (Decathlon, Leroy Merlin eta Alcampo-ren jabea), Domusvi (ICG arrisku-funtsarena), Idea (Opus Dei) eta abar... Eta multinazionalak zergatik sartzen dira negozio honetan? Eskubide Sozialen (izen oso egokia, gainera) Departamentuaren datuak oso esanguratsuak dira: itunpeko plaza bakoitzak 2.000 euro jasotzen ditu, Nafarroako diru publikoa enpresa hauetara bideratzen. Ba al dago negozio borobilagorik?

COVID-19aren garai triste hauetan... Eskubide soziala ala negozio beltza?

Eta Nafarroan gainera, Nagusi Intelligence Center (hau bai izen ederra) gabe... ●

ARGIA

Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU

ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

KORONABIRUSA, **ZALDIBAR** ETA **USTELKERIA** KASUEN LEGEALDIA

Uztailaren 12an egingo dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, horrela XII. legegintzaldiari hasiera emanez. Apirilaren 5ean egitekoak ziren, baina koronabirusaren krisia dela eta atzeratu egin ziren, alderdi guztien adostasunez. Uztailaren 12ko data hautatzearen kontra agertu ziren, aldiz, oposizioko indar nagusi diren EH Bildu eta Elkarrekin Podemos.

XABIER LETONA BITERI

Berez, legealdiak urriaren 25ean amaitu behar zuen, beraz, ordura arteko tartea zegoen hauteskundeak egiteko. Eta egoera berezi honetan, Eusko Legebiltzarrak har zezakeen bestelako erabaki ezohikorik ere. Hala ere, EAJk hauteskundeak egiteko premia ikusi du, osasunaren eta ekonomiaren egoera jadanik larriak etorkizunean are eta gehiago ilundu aurretik. Oraindik, gainera, ezin ziurtatu guztiz egingo direnik, gaitzaren garapenak hala eskatuko balu, bertan behera utziko zituela iragarri baitzuen Urkullu lehendakariak. Ez dirudi hala gertatuko denik, baina COVID-19aren agerraldi txikiak ikusten ari dira han-hemenka eta, beraz, ezin erabateko iragarpenik egin.

Azken 40 urteetan egindako hauteskunde berezienak izango dira seguruenik, herritarra higiene eta babes neurri berezien artean joango delako botoa ematera. Eta seguruenik, pandemiaren kudeaketa izango da herritarrek botoa emateko buruan izango duten gai nagusietakoa. Ondorengo erreportajean aztertuko dugu gaia, beste hainbat alorrekin batera. Azken legealdi honetan bero-bero egon diren hainbat alor miatu ditugu: Zaldibarko hondamendia, ustelkeria kasuak, estatutuaren erreforma edo euskararena dira horietako batzuk. Hauteskunde kanpainak iraun bitartean, halaber, egunez egun ARGIAren webgunean landuko ditugu beste hainbat gai.

IREKIA

KORONABIRUSA

Pandemia ez zegoen inoren gidoian

PELLO ZUBIRIA

Eusko Alderdi Jeltzaleak hauteskundeak aurreratzea erabaki zuenean gertatu gabea zen Zaldibarko desastrea. Hura itzali orduko, mundua sutu behar zuen COVID-19 pandemia heldu zen. Zorte txarra, benetan.

Eusko Legebiltzarra sakabanaturik, Iñigo Urkulluk eta bere alderdiak kudeatu dute pandemia, PSE-EEko sozioak mutu. Herritarrek apenas entzun edo ikusi duten oposiziorik. Alternantziak eta alternatibak ez dira guretzat.

Mundu osoan bezala, Espainian ere estatuak hartu du alarma egoeraren kontrola bere eskuetan. Indar autonomiazale eta subiranistek protesta egin ondoren, gero kudeaketari abantailak ateratzeko negoziatu dute, beste barik.

Mendebaldean leku gutxitan bezalako hondamendi humanoa eragin du koronabirusak Euskal Herrian. EAEn are larriagoa. Ekainaren 21a arte Euskal Herriak 2.142 heriotza zeramatzan kontatuta, milioiko 675. EAEk milioiko 732: Arabak 1.133, Bizkaiak 807, Gipuzkoak 431.

Inork txintik atera gabe, Eusko Jaurlaritzak gai honetan erlikia bihurtu ditu Lurralde Historikoen Legea eta foralitatea (zergatik hautatu Legebiltzarra 25+25+25 formulaz?): hirurak bat bihurtu ditu, estatistiken maneiuan bezala konfinamenduaren epeen kudeaketan hiru hain ezberdin berdinduz. Eskandalagarria jokabidea, interes elektoralek baizik esplikatu ezin dutena.

Europako eskualdeen artean autonomia fiskal eta ekonomikorik handienetakoa dauka EAEk. Herritarren irudipenean askoz hobea da hemengo osasun sistema publikoa ingurukoena baino. Hala ere, tragedia handi honek eskatzen du zorrotz berrikustea Eusko Jaurlaritzatik urteotan osasungintza eta zaharren zaintzarako hautatutako ereduaren oinarriak: funtsezko atal osoak zerbitzu pribatu 'low cost' bihurtu, ikerketa publikoa merkatuaren mende utzi, prebentzio eta hurbileko zaintza pobretuz diruak bioteknologietako proiektu eta produktu pribatura bideratu...

Karrikako solasei eta argitaratzen diren iritziei kasu egitekotan, herritarren artean kezka badago, baina gauzak hain txarto joan diren sentsaziorik ez. Seinale EAJk 40 urteotan antolatu eta sendotu duen makineria sofistikatuak ondo lotuta dauzkala informazioaren agenda eta iritzi publikoaren formazioa kontrolatzen duten hedabide nagusiak, publikoak eta pribatuak.

Ororen buru, 2008ko krisiaren ondorioak areago katramilatuz irakiten dago 100 urteotan munduak ikusi duen krisirik larriena. EAEn oraingo agintari berdinek jarraituko baitute hauteskundeen ostean –hori segurua da– hurrengo erasoak herritarrok harrapatuko gaitu 2020 udaberriko hondamendi humanoaren dolua txukun egin barik. Halako sargorietan lehertzen dira ekaitzik bortitzenak. ●

Iñigo Urkullu eta Estefania Beltran de Heredia Berrozin, Alarma-egoera kudeatzeko Ertzaintzaren Aginte Zentralizaturako gunean.

IREKIA

AUTOGOBERNUA

Estatutuaren erreforma izoztu zenekoa

Gernikako Estatutua 1979an onartu zen eta Trantsizioko labe politikoaren ondorioetako bat izan zen. Euskal gizartea etengabe zegoen mobilizatuta Franco diktadorearen heriotzaren ondoren: amnistiaren aldeko mugimendu indartsua, zentral nuklearren aurkakoa, autogobernua edo independentziaren aldekoa, langile mugimendua, ETAren jardun armatu gogorra... Eta presio lapiko erraldoi horren fruituetako bat izan zen Gernikako Estatutua.

XABIER LETONA BITERI

22 urte geroago, Ibarretxe lehendakari jeltzaleak erabaki zuen tresna hark ez zuela balio XXI. mendeko erronkei erantzuteko eta 2001ean Ibarretxe Plana –estatutuaren erreforma– aurkeztu zuen, Lizarra-Garaziren apustu abertzaleak porrot egin ondoren, ETAk su-etena hautsita eta gatazka giro gogorrean. 2004an Estatutu Politiko Berria onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Ezker abertzaleko indar nagusia zen Batasunak gogor egin zuen planaren aurka, baina azkenean legebiltzarrean behar zituen aldeko hiru botoak eman zizkion.

Ibarretxe Lehendakariak erreforma aurkeztu zuen Espainiako Kongresuan, baina honek eztabaidarako ere ez zuen onartu. Ez da samurra legebiltzar baten borondateari mespretxu handiagorik egitea: ezta eztabaidarako ere. Funtsean, aldebikotasuna eta erabaki eskubidea oinarri, autogobernu mailan oso urrats garrantzitsuak zituen estatutu berriak, harreman konfederalerako doinu eta guzti. Baina porrot egin zuen, Madril ez zegoen hura onartzeko prest eta ezker abertzalearen barruan ere desadostasunak gehitzen ari ziren, bai planarekiko bai gatazkatik ateratzeko ereduarekiko ere, geroago argi ikusiko zen moduan.

LEGEBILTZARRETIK AT, LOIOLAKO SAIOA

2006an iritsiko zen lurreratze pista berria, ETAk su-etena eman zuen eta EAJren, Batasunaren eta PSE-EEren arteko negoziazioak izan ziren Loiolan. Hemen ere Euskal Herriaren autogobernua giltzarri izan zen negoziazioetan, eta aurreakordioa lortu zen erabakitzeko eskubidea eta, EAEren eta Nafarroaren arteko organo bateratuaz. Loiolako saio hartatik gaurdaino, estatutuaren erreformaren gurpilak presioa galdu du urtetik urtera, paradoxikoa bada ere baita 2011n ETAk armak utziko zituela iragarri ondoren ere.

2008an Ibarretxe lehendakariak Eusko Legebiltzarrak onartutako Estatutu Berria eraman nahi izan zuen herritarren kontsultara, baina Espainiako Gobernuak debekatu egin zion eta bere alderdiak ere ez zuen aurrera jarraitzeko inongo interesik erakutsi. Hor bukatu zen Ibarretxeren saioa. Ez haren espiritua, ordea, eta 2018an Eusko Legebiltzarrean EAJk eta EH Bilduk lortutako akordioaren printzipioetan, Ibarretxe planaren adar ugari ageri ziren, horietako asko oraingoan EH Bilduk ekarriak.

2012ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EAJk Iñigo Urkullu aurkeztu zuen lehendakaritzarako eta bere hauteskunde programan legealdiaren amaierarako Gernikako Estatutuaren erreforma agindu zuen. Ez zuen agindua bete. 2016ko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetako programan berriz agindu zuen erreforma, eta honetan saio bat egon da. Bestelako kontua da zein saio mota.

2018an EH Bilduk eta EAJk estatutuaren erreformarako printzipioei buruzko akordioa lortu zuten, funtsean Ibarretxe Planak biltzen zituenak. Oraingoan kontzertu ekonomikoaren printzipioetan sostengatuta, Espainiari kontzertu politikoa eskaintzen zitzaion, aldebiko harremana eta erabaki eskubidea oinarri. Eta printzipioetan amaitu zen EH Bildu eta EAJren arteko elkarlana, gero ez baitzen ahaleginik egin horiek testu artikulatu batera eramateko, nahiz eta legebiltzarreko bi indarren gehiengo handiak horretarako aukera eman (48 eserleku 75etik). Gainera, erabakitzeko eskubidearen aldeko indarrek –EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos– 59 boto biltzen zituzten.

Lehenago EAJk eta EH Bilduk adostutako printzipioekin zerikusirik ez zuen aditu batzordearen esku utzi zen testu artikulatua (legebiltzarreko alderdi bakoitzeko aditu bat). PPk Jaime Ignacio del Burgo izendatu zuen ordezkari; horrek dena esaten du hor lortu zitekeen akor-

GOIAN
Gernikako Estatutuaren aldeko mitina. Erdian Dolores Ibarruri *Pasionaria*, Carlos Garaikoetxea eta Manuel Irujo, besteak beste.

ERDIAN
2008an estatutuaren erreforma kontsultara eramango zuela iragarri zuen Ibarretxe lehendakariak, baina Madrilek debekatu egin zion.

BEHEAN
Azken legealdi honetan estatutuaren erreformaren testua lantzen aritu den lan taldea, Eusko Legebiltzarreko letratu nagusiarekin (eskuinean).

dio mailaz. Edo bestela esanda, batzorde hori izan da EAJk testu artikulatua osatzeko erakutsi duen borondatearen termometroa. Emaitza ere halakoxea izan da, ez da akordiorik izan, aditu bakoitzak 2019ko abenduan bere proposamena aurkeztu zuen eta Eusko Legebiltzarrak gaia hurrengo legealdirako utzi du, beste behin ere.

Trantsizio garaiko presioarekin Gernikako Estatutua lortu zen. Ibarretxe Planaren garaian erabaki eskubidea eta autogobernua estuki lotuak ziren gatazkaren aterabidean, Loiolako negoziazioetan ikusi zen moduan. Gaur egun zer presio du autogobernuaren eltzeak? Euskal gizarteari begira, hutsa. Une honetan gaiak herritarrengan pizten duen grina ikusita, ura apurka berotu eta ohartu gabe hiltzen den igelarena gerta dakioke estatutuaren erreformari, baina alderantziz, berotuz baino hoztuz hil daiteke erreforma. Sua inork astintzen ez badu, hori da irudika daitekeen hipotesietako bat: datozen urteetan autogobernu desioa guztiz izoztea. Baina bada beste hipotesi bat: EAJk eta PSEk erreformarako oinarri berriak adostea eta azkenean gauzatzea, hori bai, Madrilgo bultzada zentralista ikusita, akaso Gernikako Estatutuaren edukietan atzera eginez. ●

ZALDIBAR

EAJ urduritu zuten maskarak

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Gizartean jende masa zabal bati barruan "krak" egin zion zerbaitek otsailaren 6an oso itxura txarreko lohi batek autopista hartu zuela, bi langile zabor azpian geratu zirela eta ordu gutxitara su toxiko bat piztu zela jakitean. Hilabetez aktualitateko lehen lerroan mantendu zuten gaia aire toxikoaren eta lurpean dirauten langileen aferek. Tarte horretan, kazetaritza lanek azaleratu zuten zabortegiaren inguruko enpresarien eta politikarien berri, eta pixkanaka jende askok ulertu zuen, EAJk eta PSEk hainbeste urtean negozio biribil bihurtutako hondakinen kudeaketa ereduak dakarrena: osasuna eta ingurumena diruaren azpitik jartzea.

Errealitate gordina bizi izan zuten inguruko herritarrek, eta erakundeetatik saihestu ezinezko istripu gisa saldu nahi izan zen arren, herritarron begietara arduradunak oso agerian zeuden: bi langile geratu ziren lurperatuta eta enpresak aurreko egunetatik bazekien pitzadurak zabaldu zirela. Lehen erreskate orduetan amiantoarentzako babes ekiporik gabe aritu ziren suhiltzaileak eta gainerako langileak, eta Jaurlaritzak bazekien zabortegi horretan amiantoa ere bazegoela. Berria-k eta gainerako hedabideek argitaratu zituzten testigantzek adierazi zuten zabortegi horretan edozer isurtzea libre izan zela eta Jaurlaritzarentzat oso zaila zen kontrolik eza justifikatzea. Beraz, herritarra ez zen harritu, enpresaren jabe diren barinagatarrek politikariekin zituzten laguntasunak eta negozio interesak publiko egin zirenean.

Kaltetutako herritarrek desenkantua hartu zuten ikusi zutenean normaltasun irudia mantentzea lehenetsi zuela Jaurlaritzak, gaiari zegokion larritasuna aitortzea baino. Urkullu ezkutatu egin zen zabor-jauziaren osteko asteburuan, eta Josu Erkorekak Anboto gailurretik argazkia bidali zuen, herritarrak erreskate aukerei eta itzaltzea kostatzen ari zen suari adi zeuden ordu luzeetan. Astelehenean

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Urkullu prentsaurrekoan agertu zenean azalpenak emango zituela espero zuten herritarrek, baina hauteskundeak iragartzera mugatu zen. Eta Gara-ko kazetariak hondamendiaz galdetu zionean erasokor erantzun zion, "Zaldibar" ahoskatzea saihesteko esaldiak bihurrituz. Zabor azpian jarraitzen zuten Alberto Sololuze eta Joaquin Beltránen familiek adierazi zuten abandonatuta sentitu zirela arduradun politikoengandik. Airea jasangaitza zen egun haietan bizimodu "normala" egiteko esan zieten herritarrei, baina gerora jakin zuten egun haietan arnastu zuten dioxina kopurua 40 aldiz handiagoa izan zela onartutakoa baino. Erakundeekiko konfiantza urratu zen herritarrengan.

Urkulluk trajea garbi mantendu zezan, PSEko kideak bidali zituzten azalpenak ematera lehen unetik, baina Ingurumen sailburu Arriolarengan baino gehiago Elena Morenoren bizkar utzi zuten karga. Lan zikinen banaketatik garbiegi atera zen ordea Urkullu, eta ondorioa izan zen herritarrek larrialdi egoera gisa perzibitzen zuten hartan ez zuela lidergorik. Hutsune hori itxuratzeko ondorengoa iragarri zuen Jaurlaritzak otsailaren 25ean (zabortegia erori eta 19 egunetara): "Lehendakaria izango da Zaldibarko jardueren jarraipena egiteko erakunde arteko koordinazio-bileraren burua". Ordurako Zaldibarko gaia Espainiako hedabideetara iritsia zen, eta EAJko aurpegi ezagunak deseroso ageri ziren, kudeaketa baitzen auzitan jartzen hasi zena, hain zuzen EAJk kanpaina guztietan bere zigilutzat aurkeztu izan duen hori bera.

Zaldibar Argitu plataforma sortu zuten herritarrek martxoaren 5ean eta Euskal Herri osoan oihartzuna lortu zuten ekimenak antolatu zituzten. Eta... koronabirusa etorri zen. Zaldibar zokoratuta geratu zen aktualitatearen rankingean. Baina Alberto Sololuze eta Joaquin Beltránen gorpuek agertu gabe dirautenez, Jaurlaritzari asko gaiztotu zitzaion zauri hark zabalik dirau eta eskarmentua utzi du gainerako herrietan ere: Azkoitian presaka eta politikarien bultzadaz eraiki nahi zuten hondakinen zentro pribatua geldiaraztea lortu dute herritarrek ekainean, EAJ agintean den udalaren jarrera aldaraziz. ●

USTELKERIA

“Enpresei fabore tratua eta enpresak mesedeak bueltan: hori da EAJren ekonomia zirkularra”

Javi Aguillo Fernández de Gorostiza
ADI! Elkarteko kidea

ZIGOR OLEAGA

Zein izan dira legealdi honetako gertakari esanguratsuenak ustelkeriaren esparruan?
Osakidetzaren oposaketetako iruzurra, Zaldibarko zabortegiaren kasuan egon daitezkeen irregularitasunak eta Montai enpresari egindako esleipenen ikerketa. Hala ere, Justiziaren geldotasuna dela eta, De Miguel auzia, Gipuzkoako Ogasunaren kontrako Bravo auzia eta Alonsotegikoa izan dira epaiketa garrantzitsuenak. Guztietan daude EAJko kideak auzipetuta, erantzukizuneko karguak zituztenak alderdiaren barruan edo kudeaketa publikoko postuetan.

De Miguel kasuaz zer balorazio egiten duzue?
Euskal Herrian epaitutako ustelkeria kasurik handiena da, 26 auzipeturekin, tartean EAJrekin lotura zuzena duten burukideak eta kargu publikoak. Epaiak argi utzi zuen antolatutako sarea zegoela. Ez da kasu isolatua, hala erakusten dute EAJrekin zerikusia duten pertsonei lotutako kasu ugarik: Marguello kasua, Osakidetza, Karrantzako Purines, Hiriko eta Epsilon, Cabieces kasua... Guztietan modus operandi bera izan dute.

Gasteizko epaiketan –eta aurretiko prozeduran– fiskalak beharrezko bitartekorik gabe lan egin zuen eta kereila jartzeko mehatxu egin zuten, Ertzaintzaren lana zalantzan jarri zen, lekuko nagusiak hertsapen ugari jaso zuen... Ez da muinera iristeko interesik izan: alderdi politiko baten kudeaketa-eredua, 40 urte daramatzana euskal erakunde publikoak bezero-sare baten pean bere probetxurako kudeatzen. Hurbileko enpresei fabore-tratua ematen die, eta gero enpresek mesedeak bueltatzen dituzte dohaintza eta abarren bidez: EAJren ekonomia zirkularra.

Gipuzkoako EAJko buru Joseba Egibarrek Alfredo de Migueli babesa eskaini zion 2011ko apirilean.

Zein izan da Eusko Jaurlaritzaren eta EAJren jarrera publiko egin diren ustelkeria kasuen aurrean?
Espainiako Estatuan ustelkeriaren aurrean PPk edo PSOEk duten jarreraren antzekoa du EAJk. Lehen urratsa alderdia kasuetatik bereiztea eta portaera indibidual gisa aurkeztea da. Batetik Justiziaren ikerketa babestu, eta errugabetasun-presuntzioa bestetik. Baina aldi berean, isilpean, auzipetuak babesten ditu abokatuak erraztuz, informazioa dosifikatzen eta manipulatzen du hedabide publikoen bidez, fiskalak presionatzen ditu, salatzaileak hertsatu. Ez beren kargu publikoek bidez, baizik eta alderdiko 'iturginak' edo beste militante batzuk baliatuz.

Legealdi honetan ustelkeria oztopatzeko neurririk hartu al da?
Ez da neurririk ezarri eta ez dute hartzeko asmorik, besteak beste presio sozialaren ahuleziagatik eta euskal erakundeetan oposizioak egiten duen lan ahulagatik.

Eusko Jaurlaritzak, EAJren eta PSEren gidaritzapean, eskola-jantokietako iruzurrari buruzko batzordea baino ez du onartu legegintzaldi honetan, oposizioak behartuta. Osakidetzako iruzurrari ikertzeko batzordea osatzeko proposamena atzera bota du, beste horrenbeste ustelkeria salatzaileak babesteko lege proposamenari dagokionez. Duela gutxi, EAJk eta PSEk EAEn ustelkeriaren aurkako Fiskaltza sortzearen aurka egin zuten Arabako Batzar Nagusietan. Zeren beldur dira? Zer ezkutatzen dute? ●

EUSKARA

Hogeita bi eta bat

MALORES ETXEBERRIA ARRESE

Julian Retegik Juan Inazio osaba tanto bakarrean utzi zueneko partida famatua izan zen. Julian aurretik, lehiakor, harro, seguru, osaba atzetik, pilota ikusi ere egiten ez zuela. Osabaren tanto bakar horrek ere min eman ziola aitortu omen zuen Julianek, hutsean uztea helburu, sobrare.

Abilidadez jokatu dute hizkuntzaren partida Jaurlaritzako bi sozioek legealdi honetan. Aurreko urteetako joko-estrategia aldatuta abiatu zuten jokaldia, entrenatzaile eta jokalari berriekin, eta joko ederra ikusteko parada eskaini dute. Tantoz tanto, aurkaria txikitu eta ikusleak bereganatzea lortu dute. Hogeita bigarren tantorako sakeak zutik jarri du frontoia.

Beste gai askotan gertatzen den bezalaxe, hizkuntza kontuetan ere antzeko hitzak eta kontzeptuak erabiltzen ditugu kontrajarriak diren edota bata besteari rengandik urrun dauden ideiak adierazteko. Hala, ekonomia zirkularra deitzen diogu hondakinak nola edo hala sailkatu eta trontzorik handiena erraustegira bidaltzeko sistemari; heziketa inklusiboaz ari gara matrikulazio kanpainetan kolore pixka bat sartu eta etorri berriei gure eskoletan behar dituzten baliabideak eskaintzen ez dizkiegunean; genero parekidetasuna deitzen diogu mahai inguruan gizonak eta emakumeak kopuruan berdintzeari, eguneroko languneetan, maiz, emakumeok hitza hartzeko ere zailtasuna dugunean; zertaz ari ote gara hizkuntza normalkuntza edo, gaur egun dioten moduan, hizkuntza berdintasuna, diogunean?

Gutxi aurreratu dugu azken urteotan eta mantso goaz, oso mantso, nahiz eta bestelako irudi bat ematen saiatzen garen. Adibide txiki bat besterik ez: gaur oraindik, gure herrietan lasai asko irekitzen dituzte merkatalgune handiak, inolako exijentzia linguistikorik gabe, ez baitugu legerik hori zorrotz arautzen duenik. Ordainetan, nolabaiteko adabakia jartzeko, udala behartuta dago, 2016ko Udal Legeak jasotzen duenaren arabera, gune horien eragin linguistikoa neurtzera, eta, eragin hori negatiboa izan badaiteke, neurri zuzentzaileak aholkatzera. Aholkatu, proposatu, inoiz ez exijitu. Herriko euskaltzaleak ondoren, hamabost eguneko ariketa bat egiteko proposamena egitera joango dira merkatalgunera, asertibitate handiz, kontsumitzaile euskaldunok langile euskaldunez hornitutako ordainlekuak izan ditzagun, gure hizkuntz eskubideak errespetatuak izateko. Hamabost eguneko ariketa eginda, libre hurrengo bat arte. Exijentziarik ez da gehiago. Dena da sustapena eta sedukzioa.

Merkatalguneak, administrazioa, osasun etxeak, irakaskuntza, kirol jarduerak, enpresa mundua, hedabide publikoak, aspalditik bidean omen den doako euskalduntzea... Sakoneko hutsuneek hutsune izaten jarraitzen dute, baina bada gauza bat errotik aldatu dena, eta hori presio soziala da. Mugimendu sozialak, konfrontaziorik gabeko elkarlanaren izenean, autonomia galtzen joan dira, zentzu kritikoz aurrera egitea eta eginaraztea zailduz. Horrek eman dio boterean dagoenari 22. tantoa. ●

ALIANTZAK

“EAJ oso funtzionala izan da Espainiako sistema politikoa hemen errotzeko”

Mario Zubiaga
EHUko zientzia politikoetako irakasle

XABIER LETONA BITERI

Zergatik irabazten ditu hauteskundeak beti EAJk?
Bi alderdi mota daude gizartean: ispilu-alderdiak eta proiektu-alderdiak. Ispilu-alderdiek gaitasun handia dute une zehatz batean gizartearen argazki zehatza egiteko eta, oro har, ados daude dugun gizartearekin. Proiektu-alderdiek gizartean aldaketa sakonak nahi dituzte. EAJ ispilu-alderdia da eta EH Bildu proiektu-alderdia. Proiektuak aldaketa eskatzen du, arriskuak onartzea, errutinak ezbaian jartzea... Eta zer nolako gizartea dugu? Gizarte heldua, adinez zaharkitua, garatua eta kontserbadorea. EAJri errazagoa zaio islatzea egungo gizarte hori.

Gaia ikuspegi dinamikoago batetik ere azter dezakegu. Hau da, azken 40-45 urteetan zein funtzio bete du EAJk euskal eta espainiar sistema politikoan? Funtzio hori izan da euste-horma izatea, EAJ oso funtzionala izan da Espainiako sistema politikoa hemen errotzeko eta Espainiako sistema politikoak eskaini behar zigun hori kudeatzeko.

Funtzio hori oso eraginkorra izan da ETAren garaian, baina ez dago hain garbi ETAren ondorengoan ere hala izango den, batez ere, ETAren erreferentzia den eremu sozio-politiko-ideologikoak ikuspegi sistemikoagoa hartzen duen neurrian. Gakoa da EH Bildu, zentrorantz daraman prozesu horretan, ea zein punturaino bilaka daitekeen aliatu fidagarria Espainiako sistema politikoarentzat. Hori gertatzen bada, orduan EAJren euste-horma funtzio hori ezbaian gera daiteke eta, akordioak eta aliantzak anitzagoak izan daitezke.

> *“Dena den, EAJ-PSE koalizio sistemiko hori kanpainaren erdigunean kokatu izanak, 40 urteotako erregimen autonomikoa jarri du nolabaiteko 'erreferendum' batean”*

Adibidez, EH Bildu eta PSEren artean?
Bai. EAJk hauteskundeak “erlatiboki” irabazten ditu, eta EAEko alderdi-sistema anitza ikusita, nekez lor dezake bere kabuz gehiengo osoa. Baina Espainiako makulu sistemikoa hor du eskura, eta beraz, gobernu alternatiba osatzeko, tandema gainditu behar da. Dena den, EAJ-PSE koalizio sistemiko hori kanpainaren erdigunean kokatu izanak, 40 urteotako erregimen autonomikoa jarri du nolabaiteko "erreferendum" batean. Krisi pandemikoak lagunduta, ziurrenik garaile aterako da tandema oraingoan ere, baina hautuaren gordintasunak erregimen mota horren agortzea agerian utzi duela esango nuke.

Gerta litezke aliantza berri horiek?
EH Bilduren gaur egungo Espainiarekiko jarrera proposamen konfederala da, hau da, erabaki eskubidea onartuko lukeen akordio bat lortzea. Horrekin PSOEren eta Podemosen sinesgarritasuna irabazten badu, agian hemen gauzak alda daitezke, baina ez dut uste hori epe laburrean gauzatuko denik.

EH Bilduren, PSEren eta Podemosen alternatibaz hitz egiten da batzuetan.
Hori oso zaila da, batez ere PSEk eta hemengo Podemosek ez dutelako estatu estrategiaren barruan erabakiak hartzeko askatasunik. Erabaki horiek Madrildik hartzen dituzte. Gainera, hor badago beste osagai bat: EAJ-EH Bilduren borroka. Hau da, Espainiarekiko harreman bilateral horretan, nork lortuko du gehiago Euskal Herriarentzat? Alde horretatik PSOErentzat ituna beti izango da errazagoa EAJrekin, EH Bilduk listoia gorago jarriko diolako, autogobernua eta ezkerraren ikuspegitik.

Eta PSOEri begira baino, EAJ eta EH Bildu elkarri begira jarriko balira?
EAJren bi arimak beti daude hor, eta beraz, Ibarretxeren aldeko arima indartuko balitz... Ñabardura gutxi batzuekin, gaur egun EH Bilduren estrategia “ibarretxista” da, eta alde horretatik ez legoke arazorik, baina ez dut uste egungo EAJn horretarako interesik dagoenik. Egungo posizioan arrakasta ziurtatuta dute eta politikan oso zaila da egoera horretan egonda aldaketa handiak egitea, ez behintzat zerbait oso larria gertatzen ez bada. ●

EGIA ZOR DIETE

Rosi Zarra donostiarra 1995eko ekainaren 30ean hil zen, 58 urterekin, Ertzaintzaren gomazko pilota batek sabelean jo eta zortzi egunera. Amara Berriko Bakearen Usoaren aurrean zauritu zuten, protesta batean istiluak sortu zirenean. Ertzaintzak ikerketa abiatu zuen Zarraren familiak salaketa jarri ondoren. Auzitegiko medikuek arrazoi naturalengatik zendu zela ondorioztatu zuten. Aldiz, Zarraren nefrologoak adierazi zuen pilotakadak eragindako infekzioarengatik hil zela. Epaileak bertsio ofiziala soilik hartu zuen aintzat eta auzia artxibatu zuen.

JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

INAXIO ESNAOLA
FAMILIAREN ARTXIBOA

IRUTXULOKO HITZA

Erreportaje hau Irutxuloko Hitzak argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Familiak ez du ahaztu gertaturikoa, eta egia, justizia eta erreparazioa da eskatzen dutena. Rosi Zarraren sendiak argi dauka Ertzaintzaren pilotakadaren ondorioz hil zela, eta ez berezko osasun arazoengatik. Hilaren 30ean 25 urte beteko dira Zarra zendu zenetik, eta Irutxuloko Hitza Xabier Irazusta (Erdialdea, 1937) alargunarekin eta Maider Irazusta (Amara Berri, 1973) alaba gazteenarekin elkartu da urteurrenaren atarian.

Rosa zen bere izena, baina Rosi deitzen zioten familian eta lagunartean. Parte Zaharrean jaio bazen ere, Xabierrekin ezkondu eta Amara Berrira joan ziren bizitzera. Sei seme-alaba izan zituzten: Idoia, Amaia, Xabier, Gorka, Asier eta Maider. "Oso alaia eta irekia zen, nahiz eta asko sufritu gaixotasunarengatik. Beti kantari zebilen. Baina, batez ere, oso pertsona indartsua zen", azaldu du Maiderrek. Haurra zenetik zuen giltzurrunetako gaixotasuna, eta transplantea egin ziotenetik bizitza zeharo aldatu zitzaiola dio. "Bizitzaz gozatzen ari zen dena gertatu zenean".

Rosi Zarra, Maider Irazusta alaba gazteena eta Xabier Irazusta, Rosiren alarguna.

PILOTAKADAREN EGUNA

1995eko ekainaren 22an gertatu zenaren lekuko zuzenak izan ziren Xabier eta Maider. Euskal Herriko giro politiko eta soziala nahasia zen. Bezperan, Lasa eta Zabalaren gorpuak Tolosako hilerrira eraman zituzten, eta istilu larriak gertatu ziren Ertzaintzarekin. Horren aurka protesta egiteko *Euskal Herria Askatu* plataformak elkarretaratzera deitu zuen Amara Berriko Bakearen Usoaren inguruan. Toki berean, ostegunero, Alditrans enpresako langileak elkartzen ziren ETAk bahituriko Jose Maria Aldaia enpresaburuaren askatasuna eskatzeko.

"Emazteak eta biok asmoa genuen Tolosako hilerrira joateko, baina azkenean ez joatea erabaki genuen. Hurrengo egunean elkarretaratze batera deitu zuten Anoetako estadioaren aurrean, Tolosan gertaturikoa salatzeko. Ni bakarrik joan nintzen elkarretaratzera, eta Rosi etxean geratu zen. Ondoren, nire bila etorri zen Maiderrekin batera", gogoratu du Xabierrek. Garaiko prentsan argitaratu zen Zarrak elkarretaratzean parte hartu zuela, baina ez zen horrela izan. "Egun hartan kafetxo bat hartzeko geratu nintzen amarekin. Ondoren esan nion ea zergatik ez ginen aitaren bila joaten, eta horrela elkartu ginen hiruok han", azpimarratu du Maiderrek.

Elkarretaratzeak bukatu zirenean sortu ziren istiluak bi mobilizazioen arteko pertsonen artean. "Hasieran ez zegoen tentsio handirik, baina pixkanaka areagotuz joan zen. Ertzaintza agertu zen, eta jendea korrika hasi zen Madril hiribiderantz, Anoeta estadiorantz, Topoko sarrerarantz ... Pixka bat beldurtu ginen istiluak ikusita", dio Xabierrek. "Istiluak Anoeta estadioaren inguruan gertatu ziren. Batzuek Zorroagan gora ere egin zuten ihesi. Anoetan zeuden eskailera batzuetan babestu ginen, eta handik ikusi genuen ertzainek nola kolpatzen zituzten Topotik ateratzen ari ziren pertsona guztiak. Gero, estadio parean dagoen etxebizitza dorrearen arkupeetara joan ginen", gaineratu du Maiderrek.

"Arkupeetan 30 bat lagun elkartu ginen, eta lasai geunden. Istiluak beste leku batzuetan zeuden. Izkina batean nengoen ni, eta erdirago zeuden emaztea eta alaba. Halako batean bi ertzain agertu ziren, baina ez ziren beltzak, alkandora urdinekoak ziren. Espaloitik zortzi edo bederatzi metrora zeuden, eta bat-batean tiro hotsa entzun nuen. Orduan Rosi lurrean ikusi nuen", kontatu du Xabierrek. "Amarengana korrika joan nintzen. Segituan anbulantziara eraman zuten. Ez dakit ertzainei zerbait esan nien edo ez, baina niregana etorri ziren. Lurrean nengoen, garrasika, pentsatzen nuelako jo egingo nindutela", dio Maiderrek.

Rosi Zarra lagun batzuekin, Asturiasen, 1994an.

Gomazko pilota jaurti izana leporatu zien Xabierrek ertzainei. Telebista batek grabatu zituen irudi horiek, baita Zarra anbulantziara eraman zuten momentua ere: "Ertzainak pilota jaurtitzeko asmoz agertu ziren, eta, zoritxarrez, emaztea jo zuten. Beste bati tokatu ahal zitzaion. Ertzainekin eztabaida izan nuen, eta nirekin anbulantziara etortzeko esan nien. Izan ere, pilotakadaren kolpea giltzurrunetako transplantea zuen tokian jaso zuen", salatu du Xabierrek. Gurutze Gorriak Arantzazuko Ama ospitalera eraman zuen Zarra. "Gure kezka nagusia giltzurruna zen. Amak etengabe errepikatzen zuen, 'Giltzurruna, giltzurruna'. Mediku azterketak egin zizkioten eta giltzurruna ondo zuela esan zuten sendagileek. Ubeldu handia zuen, baina ondo zegoen ama. Alta eman zioten eta etxera joan ginen", adierazi du Maiderrek.

HERIOTZA ETA AUZIBIDEA

Hurrengo egunetan Zarrak mina zuela antzeman zuten senideek, baina kolpeagatik normala izango zela iruditu zitzaien. Xabierrek txango bat zuen Alcer Gipuzkoako Giltzurrun Gaixoen Elkartearekin, eta antolatzailea zenez, joan egin zen. "Ez zitzaidan iruditu Rosi gaizki zegoenik. Gainera, nefrologoak esan zidan ez zegoela larritzeko arrazoirik", dio Xabierrek. Pilotakada jaso eta hiru egunera, ekainaren 25ean, min handia sentitu zuen Zarrak, eta ospitalean ingresatu zuten. Hiru eskaner eta bi ekografia egin zizkioten, baina medikuek ez zioten inolako lesiorik atzeman.

Ekainaren 27an okerrera egin zuen, sukarra eta arnasa hartzeko zailtasunak zituelako. Ebakuntza egin zioten, eta orduan ikusi zuten infekzio zabala zuela eta heste lodia geldirik zegoela. Zainketa Berezien Unitatera eraman zuten, eta ekainaren 30ean hil zen. "Amari hesteak paralizatu zitzaizkion kolpearen ondorioz. Horrek shock septiko bat sortu eta kolona zulatu zion. Infekzioa zabaldu zitzaion, eta horren ondorioz zendu zela esan daiteke. Berak horri aurre egiteko nahikoa defentsarik ez zuen, hamaika urte lehenago giltzurruneko transplantea egin ziotelako", azaldu du Maiderrek.

> Hedabideek egun horietan zabaldu zuten Zarra gaixo zegoen emakumea zela. "Hori ere gezurra zen. Giltzurruneko transplantea egin zioten, bai, baina osasunez ondo zegoen"

Zarra hil ondoren, Antiguako Ertzaintzaren polizia-etxean salaketa jarri zuen familiak. "Iñigo Iruin abokatua eta biok joan ginen. Iñaki Munetak, Donostiako Ertzaintzako buruak, esan zigun gertatutakoa ikertu eta argituko zuela. Orain arte", kontatu du Xabierrek. "Ertzaintzak bere auzitegi medikuak jarri zituen, eta ondorioztatu zuten ama arrazoi naturalengatik hil zela", gaineratu du Maiderrek. Hain zuzen, Donostiako Epaitegiko forentseak arduratu ziren Zarraren autopsia egiteaz. Familiak ere auzitegi-mediku batengana jo zuen, eta honek adierazi zuen Zarraren heriotza pilotakadaren eraginez gertatu zela. Iritzi berekoa zen Alex Elosegi, Arantzazuko Ama Ospitaleko nefrologia zerbitzuko medikua. Urtetan Zarraren medikua izan zen, eta prentsara bidalitako gutun batean adierazi zuen pilotakadak eragindako infekzio baten ondorioz hil zela.

Eusko Jaurlaritzaren jarrerak eta Juan Mari Atutxa Barne sailburuaren adierazpenek familiaren mina areagotu zuten. "Hasieratik Ertzaintzak erantzukizunik ez zuela zioten. Atutxak hasieran esan zuen ama zauritu zuten momentuan ertzainik ez zegoela han, baina 30 pertsonak baieztatu dezakete bi ertzain agertu eta gomazko pilota bat jaurti zutela", esan du Maiderrek. Dena dela, adierazpen mingarrienak gerora egin zituen Atutxak. Auzitegiko medikuen txostena hartuta joan zen Eusko Legebiltzarrera, eta han esan zuen Zarra aurretik zuen gaixotasunarengatik hil zela, eta ez Ertzaintzaren

Anoeta estadioaren aurrean omenaldia egin zioten Rosi Zarrari, 1996an.

pilotakada baten erruz. Hau da, berez hil zela. "Atutxaren adierazpenak onartezinak izan ziren. Jaurlaritzaren txostenak jasotzen zuen bertsioak ez zuen bat egiten gertatu zenarekin. Gainera, txosten horrek zioen, Ertzaintzaren protokoloaren arabera, pilotarik ezin zutela jaurti 30 metro baino gutxiagoko distantzia batetik. Ordea, Rosiri zortzi-bederatzi metrotik jaurti zioten", gaineratu du Xabierrek.

Heriotzaren arrazoia argitzeko, auziaren epailea Madrilgo Toxikologia Institutuaren ebazpenaren zain geratu zen. Izan ere, kontrajarriak ziren auzitegiko medikuen eta familiaren forentsearen txostenak. "Gogoan dut Toxikologia Institutuaren txostenak ez zuela argitzen heriotzaren arrazoi zehatza zein zen. Soilik zioen infekzio orokor baten ondorioz hil zela ama. Dena dela, txosten horretatik interpretatu zuten arrazoi naturalengatik zendu zela. Nik hainbatetan irakurri nuen, eta ez zuen halakorik jartzen", salatu du Maiderrek. Epaileak ontzat jo zuen azken ebazpen hori eta 1995ko iraila bukaeran artxibatu zuen kasua. "Epaiketarik gabe artxibatu zuten auzia".

Familiak Iñigo Iruin abokatuarekin hitz egin zuen jakiteko judizialki beste aukerarik ba ote zegoen. "Iruinek esan zidan auzia artxibatzen zela, eta ez zegoela helegitea aurkezteko aukerarik. Halere, salbuespen bat zegoela esan zidan; medikuak auzitara eramatea arduragabekeriagatik", azaldu du Xabierrek. Ordea, hori ez egitea erabaki zuten. "Medikuei ez genien heriotza egotzi nahi, pilotakadaren ondorioz hil zelako. Medikuek ez zuten publikoki ezer esan, baina pribatuan aitortu zuten jasotako kolpearekin lotura zuela amaren heriotzak", nabarmendu du Maiderrek.

HILETA ETA OIHARTZUNA

Rosi Zarraren hileta elizkizuna 1995eko uztailaren 3an egin zen, Parte Zaharreko San Bizente elizan. "Parte Zaharrekoa zen Rosi, eta han egitea erabaki genuen", dio Xabierrek. Aldi berean, Zarraren heriotza gaitzesteko greba eguna izan zen, HBk eta LABek deituta. Eliza bete egin zen, eta jende asko sartu ezinik geratu zen. Elizaren inguruan ikurrinak jarri zituzten, denak xingola beltzarekin. Inguruan oroigarri bat jarri zuten; Zarraren argazkia, sua eta *herriaren arima ez dute hilko* esaldia.

Meza hasi aurretik, apaizak jakinarazi zuen bonba mehatxuak jaso zituztela. Zehazki, bi dei jaso zituzten, elizaren barruan bi bonba jarrita zeudela esanez. Tokia miatu ondoren, aurrera egitea erabaki zuten apaizek, baina elizan zeudenei jakinarazi zieten. "Guk ere hiletarekin aurrera egiteko esan genien", adierazi du Xabierrek. Arratsaldean, berriz, Zarrari omenaldia egin zioten zauritu zuten lekuan, eta gertaturikoa argitzeko eskatu zuten.

Garaiko agintari bakar bat ere ez zen jarri harremanetan familiarekin. "Bizkarra eman ziguten", dio Maiderrek. "Zeharo harrituta geunden gertatu zen guztiarekin. Dena politizatu zen. Bi bando bereizi zituzten, xingola urdinekoak eta ezker abertzalekoak. Guri ezker abertzalearen zakuan sartu gintuzten elkarretaratzera joan ginelako. Hori, ordea, ez da egia. Esan bezala, aitaren bila joan ginen ama eta biok. Gainera, protesta hura ez zen Aldaiaren bahiketaren kontrakoa. Lasa eta Zabalaren gorpuekin gertatu zena salatzeko protesta bat izan zen".

Hedabideek egun horietan zabaldu zuten Zarra gaixo zegoen emakume bat zela. "Hori ere gezurra zen. Giltzurruneko transplantea egin zioten, bai, baina osasunez ondo zegoen. Hil baino hilabete lehenago Aralarren zegoen mendiaz gozatzen, eta bigarrenez amona izan zen. Osasuntsu zegoen pilotakada jaso zuen arte", azpimarratu du Maiderrek. Amaren heriotza gogorra izan zen berarentzat, baina zabaldu ziren gezurrek "kolpea bikoiztu" zutela gaineratu du.

KASUA ARGITZEKE

Rosi Zarraren kasua 2015ean itzuli zen hedabideetara. Iñigo Cabacasen heriotzaren harira, gomazko pilotak kalteturiko hainbat familiek agerraldi bat egin zuten. Eusko Legebiltzarrari eskatu zioten material horren erabilera baztertzeko. Besteak beste, Cabacasen gurasoek, Xuban Nafarrateren aitak eta Xabierrek berak parte hartu zuten: "Nire emazteari gertaturikoa kontatu nuen, eta Ertzaintzak gomazko piloten erabilera debekatzeko eskatu nuen".

Urte berean, Eusko Jaurlaritzak *Udal Erretratuen Mapa* argitaratu zuen, eta gehiago ikertu beharreko kasuen artean sartu zuen Zarrarena. Zehazki, 2015ko uztailean aurkeztu zuen Jaurlaritzak *Bizitzarako Eskubidearen Urraketen Udal Erretratuak* (1960-2010) txostena, eta Zarraren atalean aitortzen du sei metrora bota ziotela pilotakada ertzainek. "Txosten horren berri izan genuen. Amaren heriotza Ertzaintzaren gehiegikeriagatik gertatu zela onartzen du. Dena dela, familiarekin ez dira harremanetan jarri kasua argitzeko", azaldu du Maiderrek.

Sendiaren itxaropen bakarra da onartzea Ertzaintzak eta Eusko Jaurlaritzak gaizki jokatu zutela. "Egia da eskatzen duguna, besterik ez", azpimarratu du Xabierrek. "Nik oraindik ez daukat gaindituta. Gertatutako argitu ez izanak etsipena sortzen dit. Injustizia sentsazioarekin bizi naiz. Arrazoia genuela esatea besterik ez dugu nahi". ●

HILDAKO BIZIDUNEN GAUA

KARTA-JOKOA

Elkar hartuta jokatu ala bazka bihurtu

Jokalari guztiek egingo dute hilerritik ihes, ala bakarrak ere ez. Ez da elkar laguntzea beste aterabiderik. *Hildako bizidunen gaua* euskarazko karta-joko kolaboratiboa da hau. Libre deskargatzeko moduan dago jada.

JON TORNER ZABALA

Manchester, 1984. Rick eta bere lagunak basotik gertu dagoen Blackey hilerrian sartu dira. Gau berezia da, ilberria Lurrera gehien hurbiltzen den gaua, superilargiaren gaua. "Begira, kriptaren atea irekita dago, sartuko gara?", dio Brianek. Isiltasuna da nagusi. Baina, bat-batean, burrunba entzuten da. Lagunek izututa begiratzen dute, ate nagusia bat-batean nola ixten den. Sei lagunek, elkarlanean, handik bizirik ateratzeko borroka hasiko dute.

"Hildako bizidunen gaua" karta-jokoan 1-6 pertsona aritu daitezke. Guztiak elkarlanean, jokoaren beraren adimen artifizialaren aurka. Denek egingo dute hilerritik ihes, ala bakarrak ere ez. Ez dute elkar laguntzea beste aukerarik, unean uneko buru-hausteak argitu eta hildako bizidunak garaitu nahi badituzte.

Zergatik 1984ko Manchester? *Hildako bizidunen gaua* estrategia-jokoa Space Hulk: Death Angel karta-jokoan oinarritua dago, 2010ean Ingalaterran merkaturatua, 1989an sortutako mahai-jolasaren segida gisa. Hau, ordea, 1987an sortutako *Warhammer 40.000* miniatura-jolasaren unibertsoan giroturik zegoen, zientzia-fikzioaren eta fantasia heroikoaren osagaiak uztartzen dituen etorkizun distopiko batean. Haren sorburuan *Alien* filma bazegoen,

Jokoaren karta batzuk. Hainbat "tributan" daude sailkatuta pertsonaiak.

inspirazio-gorpuzki lurtarragoak baliatu dituzte *Hildako bizidunen gaua* jokoaren sortzaileek.

Halaxe azaldu digute: "Bagenuen gogoa *Space Hulk* moduko zeozer sortzeko euskaraz. Baina jatorrizko jokoaren gaia ez genuen oso gustukoa. Beldurrezko filmen zaleak gara, *Elm Street-eko amesgaiztoa*, *Hildako bizidunen itzulera*... gisa horretako pelikulen erreferentziak aurki daitezke joko honetan. 1984ko Manchesterrek badu Euskal Herriaren nolabaiteko antza, industria horrekin guztiarekin, musika mugimendua...". Jokoaren pertsonaietako batek adibidez Syd du izena, Sid Vicious gogoan. Erreferentzia horiek ordea azalekoak dira, karta-joko honetan berdin-berdin aritu daitezke 16 urteko gazteak, edota 45eko ez hain gazteak.

Jada katalogoz kanpo dagoen arren, euskarazko jokoaren sortzaileek *Space Hulk* jokoaren erdarazko arau-liburua aurkitu zuten Interneten, eta hura baliatu dute oinarri bezala. Hasiera batean zerbait "pertsonala" balitz bezala planteatu zuten, euren gustukoa zen zerbait egin nahi zuten, bakarka edo lagunekin jokatzeko. "Baina, behin gida-liburua osatuta, zergatik ez libre zabaldu, jendea euskaraz aritu zedin gisa honetako joko batean?". Izan ere, lan eskerga egin dute. 85 orrialdeko arau-liburua sareratu dute libreki deskargatzeko moduan. Jokoaren nondik-norakoak azaltzeaz gain, 142 kartak inprimatu/plastifikatzeko pausoak ere jaso dituzte. Euren Twitter kontutik deskarga dezakezue PDF formatuan: @hildakobizidun1.

Jatorrizko jokoarekin alderatuta euskarazkoak baditu ezaugarri berezi batzuk. Esaterako, bertsio honetan jokalariek hitz egin ahal dute euren artean. *Space Hulk* arrakastaz amaitzea ez da erraza, eta euskarazkoaren sortzaileek apur bat errazagoa egingo duten arauak asmatu dituzte.

Joko kolaboratiboa izanagatik ere, bakarka jokatzea ere oso entretenigarria dela azaldu digute sortzaileek. Merezi duela proba egitea. Kontziente dira gisa honetako karta-jokoetan ez dela jende mordoa aritzen, baina proba egiteagatik deus galtzekorik ez dagoela diote. *Hildako bizidunen gaua* ez da jokatzeko bereziki zaila, "nahiz eta logika hartu behar zaion". Arauak lagun artean irakurtzea gomendatzen dute, jolasaren parte balitz bezala, zalantza eragin dezaketen puntuen inguruan eztabaidatzeak ere baduelako bere grazia.

Sarean dagoena behin-behineko bertsioa da. Sortzaileen asmoa da jendea jokatzen hastea eta egoki ikusiz gero hobekuntzak proposatzea, behin-betiko bertsioa egiteko. ●

142 KARTAK ERRAZ ETA TXUKUN EGITEKO

Tablero edota miniatura jokoekin alderatuta, kartetara aritzeko azpiegitura txikiagoa behar da. Esaterako, karta bakarra nahikoa izan daiteke lokalizazio konkretu bat irudikatzeko, euskarazko bertsioaren sortzaileek azaldu diguten moduan. Dena den, kartak txukun xamar inprimatzea komeni da, noski. Horretarako, behin 142 irudiak paperean inprimatu eta moztu ostean, erditik tolestu eta tartean ohiko karta bat sar dakieke, eta ondoren karta-paper horiek tamaina egokiko plastikozko zorrotxoetan sartu –Internetez eskura daitezke–. Ideia ona da, buruan karta-jokoren bat sortzea duen edonorentzat baliagarria oso.

IRAKASLE-MASTERRA

UEUk internet bidezko eskaintza murritzari erantzun nahi dio

UEUk 120 plaza eskainiko ditu eskari handiena duten hiru espezialitateetan. Jakitun dira euskarazko eskari osoari erantzuteko ez direla gai izango.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Masterra derrigorra dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasleek, eta hizkuntzen irakasle izango direnek. EHUk euskaraz eta aurrez aurre egiteko aukera ematen du. Mondragon Unibertsitateak baditu plaza batzuk internetez eta euskaraz. Internetez eta euskaraz egin nahi duen ikasle ororentzat ez dago, ordea, aukerarik. Ikasle askok gaztelaniaz egin dute masterra Espainiako unibertsitateetan, nahiz eta etorkizunean euskaraz irakatsiko duten.

UEUk EHUren zentro atxiki gisa eskaini ahal izango du Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra. Plazak beteta daude eta irailaren 19an egingo dute aurkezpena.

Eskaera handiena dagoen hiru espezialitatetan eskainiko da masterra: Giza eta Gizarte Zientziak, Hizkuntza eta Literatura, eta Natur Zientziak eta Matematika. Bakoitzean 40 plaza egongo dira. Espezialitate bakoitzean hautazko irakasgai bat egongo da, ingelesez.

Masterra internet bidez izango bada ere, aurrez aurreko hainbat saio izango ditu, baldin eta osasun egoerak eragozpenik eragiten ez badu. Ebaluazioak eta amaierako lanaren defentsa aurrez aurre egingo dira eta praktikak hezkuntza zentroan.

ESKAINTZAK EZ DIO ESKAERA ORORI ERANTZUTEN

Masterrak zortzi espezialitate dauzka EHUn eta aurrez aurrekoak dira, EAEko hiru campusetan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, eskainiak. EHUk ez du internet bidez eskaintzen. UEUk abian jarri duen masterraren arduraduna da Aitzol Astigarraga eta berak adierazi digu internetez egiteko eskaria eskaintza baino handiagoa dela: "Irakaskuntza ikasketak bukatu berri dituztenek zuzenean masterra egiten dute eta ohikoa aurrez aurreko modalitatea aukeratzea da. Gaur egun ordea, jende helduak, bestelako lan batean ari denak ere, bestelako ikasketak egiten ditu eta batzuek master hau egin nahi dute. Lanean ari direlako edo kontziliazio kontuengatik ezin dituzte aurrez aurreko eskolak hartu. Horiek internetera jotzen dute. Euskaraz eskaintza oso murritza da, Mondragon Unibertsitateak ditu plaza batzuk. Beraz, askok masterra gaztelaniaz egiten du Errioxako edo Valentziako unibertsitateetan, adibidez. Gaztelaniaz egiteaz gain, hemengo curriculuma ez dute ikasten, eta gero hemen izango dira irakasle". 120 plaza gehiago izango dira hemendik aurrera masterra euskaraz egiteko, nahiz eta jakin badakiten eskari osoari erantzuteko moduan ez direla. ●

BABESLETZA:

KAZETARITZA EZ DA DELITUA



Arartekoak jakin nahi du ertzainen jokabidea "kontra-salaketa" izan ote zen

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Gogoratuko duzu, ziur, 2018ko maiatzaren 21ean Donostian egin zen *Bizitza Da Handiena* ekimenaren baitan sortutako eztabaida. Bai, gogoratuko duzu, segur, Gipuzkoa plazan eztabaidan aritu zirela hainbat herritar eta ertzain hizkuntz-eskubide urraketa bat tarteko. Lander Arbelaitz ARGIAko kazetariari salaketa jarri zioten Ertzaintzako bi agentek horren berri emateagatik. ARGIAk kexa jarri zuen Arartekoaren aurrean eta EAEko herriaren defendatzaileak ebazpena eman du.

Bi ertzainen jokabidean "kontra-salaketa" zantzurik ba ote dagoen jakin nahi du Arartekoak. Alegia, kazetariak grabatu eta zabaldutako bideoak izandako hedapena ikusita emandako erantzuna izan ote den salaketa, gertakariak izan eta hilabete eta erdi beranduago jarritakoa. Arartekoak hainbat gomendio egin dizkio, prebentzioaren arloan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, zalantzak argitu eta ertzainen jokabidea zuzena izan ote zen ikertzeko. Bere esanetan "ertzainen bertsioa ezin da besterik gabe ontzat eman". Areago, zigor-arloko jurisdikzioak erantzukizunik ez ikustea –salaketa atzera bota du Donostiako epaileak– poliziaren esku-hartzearen "gehiegikeria zantzua" izan liteke bere ustez.

ARGIAren kexa aztertzen aritu da Arartekoa eta horretarako informazio zehatza eskatu dio Segurtasun Sailari. Ebazpenean dio, ordea, kasu askotan ez duela bueltan halako txosten eta informaziorik jaso. ARGIAri igorritako testuan honela azaltzen du: "Segurtasun Sailari dagokio kexagileak kexaren arrazoia den ertzainen jokaeraren zuzentasunari buruz adierazi dituen zalantzak argitzea eta azaltzea, zertan oinarritu zen jokaera hori zuzena izan zela esateko, eztabaidagarriak diren alderdiak aintzat hartuta. Azaldu diren arrazoiengatik erakunde honek uste du ez duela horrelakorik egin".

HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN JARRAIBIDEAK

Arartekoak azpimarratzen du uste duela lehendik ere ezarrita dituen jarraibideak ez direla betetzen. Horrelako kasu batean agenteak egiaztatu behar du taldean euskaraz zuzendu dakiokeen beste ertzainik ba ote dagoen –kasu honetan bideoan ikusten da baietz, bazegoela euskaraz zekien beste polizia bat–, eta dio: "Hizkuntza-eskubideak errespetatzeaz gain, egoera modu horretan garatzen joatea saihestuko luke". Donostiako epaileak auzia atzera bota bazuen ere, bi ertzainetako batek errekurtsoa aurkeztu zuen bertan, epaileak berriro bota zion atzera errekurtsoa, eta orain Gipuzkoako Auzitegian jarri dute salaketa, eta hor dago gaia. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

"Euskarazko hedabideei bultzada bat ematearren eta kazetaritza aske eta independientea hiltzorian dagoelako".

Hendaiako Xabier

"Harpide ohia naiz. Bere garaian harpidetza utzi behar izan nuen lan eta egoera ekonomiko pertsonalak bultzatuta. Euskeraz argitaratzen diren medioak lagunduko ditugu, gure hizkuntzaren geroa jokoan baitago".

Bilboko Iker

"Euskarazko hedabide konprometitua delako".

Errenteriako Nagore

AGENDA

EZ NAIZ KOLONIALISTA BAINA... ELKANO ETA MUNDU BIRAREN V. MENDEURRENA

Hitzaldia

Hitzaldia emango du Argiako kazetari Axi Lopezek.

Uztailak **3**

Bergarako Kartzela zaharrean

Antolatzaileak: Angiolillo liburutegia eta Emakume Arrazializatuen Taldea

ARRAMAIATZEKO EKITOLTZA

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Arramaiatza ekaina joan zaigu. Urte erdia joana, dagoeneko. Egunargia luza eta luza eta eguniluna moztu eta moztu aritu da. Orain argia moztu eta iluna luzatzen den seihilekoan sartu gara, uda eta udazkena.

Eguraldi igarleek erdipurdiko uda izango dugula diote. Ni ez naiz ezeren igarle baina egun beroak izango ditugula esatea ez da igarletza... Udaberrian zehar eta udako lehen egunetan bezala. Ekaineko bero sapak ezagutuko zituen Jean Baptiste Constantin santagraztarrak; hauxe idatzi zuen *Eskualduna* aldizkarian 1911n: "Hurak hertü dira, onddo liliak jelkhi, / Arramaiatza jin ekhi sü tholtzeki". Toltzeki. Toltz hitzak jo niri begia. Eguzki errea, sargoria esan nahi du, ekitoltza.

Eta ekaineko ekitoltz egun haiek datorkigunaren atari-aurrea besterik ez ziren. Maiz aipatzen dut solstizioak landareek hartzen dituzten erabakietan zein une garrantzitsuak diren. Egunargia mozten hasi edo luzatzen hasi, alde ederra dago eta landarearen zikloa erabat baldintzatuko du.

Udan sartu garen egunean, oraindik loretan ziren sagarrondoak (*Malus domestica*) bazituen sagarti batean aritu ginen belar ontzen. Logikoa eta sagarrondoarentzat onena hiru hilabete lehenago loratzea litzateke. Ea zer gertatu behar den aurten sagarrarekin... Nor igarle?

Bigarren loraldia ere izaten duten landareak ere badira. Neguaren amaieran edo udaberriaren hasieran loratuak dira magnolia tulipa (*Magnolia x soulangeana*) eta Txinako glizina (*Wisteria sinensis*). Urte asko bizi direnak dira biak eta urteroko loraldi deigarria hostoak zabaldu baino lehenago irekitzen dute. Apartak dira biak ere. Orain, hostajearen udaberriko hazkundea apaltzera doanean bigarren loraldia ematen dute. Eta negurako fruitu eta hazi gehiago prestatuko ditu. Lehen hura baino apalagoa da eta hostoen gainean ez da landare soilduaren gainean bezain ikusgarria, baina arreta erakartzen du. Nolatan bigarren loraldia sasoi berean? Zer arrazoi du?

Magnolia tulipa, lorea hosto gainean.

Landarearen tokian pentsatzen jarri eta badaezpadako erabakia dela esango nuke nik. Landareek gauza asko egiten dute badaezpada. Bera sortu zuen ama hark eman zizkion aitaren eta bere gene haiek ahalik eta etorkizun seguruena izan dezaten loreak, haietatik fruituak eta haietan haziak ematera jartzen dira urtero. Nahikoa lana badute hasierako loraldi hartatik datozenei eutsi eta hazten. Landare gehienen joera da hori. Baina, badaezpadako bigarren loraldi bat ematera jartzen banaiz, zerk mugitzen nau? Zer erakusten dut? Udako ekitoltza baino gehiago bizitzeko adinako indarrean nago, negurako hazi gehiago sortzeko kuraia badut, gure amonak ondorengo gehiago izango du, lurralde gehiago esploratu eta kolonizatuko dugu.

Eta zu, ekitoltzak toltz, zure amonaren geneak hedatzeko prest al zara? ●

Ostegunero kontsultategia 18:00etan

Ostegunero 18:00etan landare kontsultategia egiten du Jakoba Errekondok zuzenean, **www.argia.eus** webgunean edo **Facebookeko Bizi Baratzea** orrian.

Bidali zure galderak aurrez: **landarekontsultategia@bizibaratzea.eus**

EUSKAL LUPULOA

EUSKAL HERRIKO BASERRIETAN EKOITZITAKO LUPULU EKOLOGIKOA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Lagunarteko hizketaldi batean dauka jatorria Euskal Lupuloa proiektuak: duela zazpi bat urte garagardoa egiten zuen lagun batek bertako garagardoa benetan bertakoa izatea ezinezko zela esan zion, Euskal Herrian lupulurik ekoizten ez zelako. "Ni baserritarra naiz eta baserri munduan egin dut lan beti. Nire kabuz ikertzen hasi nintzen". Gorka Iruretagoiena Mujika proiektuaren sortzaileak azaldu dizkigu hastapenak.

EUSKAL LUPULUAREN HISTORIA ARAKATZEN

Hasteko, Euskal Herrian noizbait lupulua ekoizteko ohiturarik egon ote zen jakin nahi izan zuen Iruretagoienak, eta bere sorpresarako, 40-50eko hamarkadetan hemengo baserrietan ekoizten zela jakin zuen. "Ez zen garagardoa egiteko ekoizten, ganaduarentzako erabiliko zuten". Hemen landarea haztea posible zela erakutsi zion horrek.

Espainiako estatuan ekoizten den lupuluaren %98 inguru Leonen egiten dela azaldu digu: "Leonen lupuluaren mundua hobe ikertzen hasi nintzen, eta mundu mailan alor honetan dagoen monopolioa ezagutu nuen: Hopsteiner lupulu enpresa erraldoia da Leongo ekoizpen osoa kontrolatzen duena". Nekazariek enpresa horri saltzen diote lupulua, baina enpresa da beti prezioak markatzen dituena. Iaz, esaterako, lupulu kiloa 4,80 euro ordaindu zioten nekazariei, eta barietate hori enpresak 30-35 euro inguruan saltzen du.

HIRU BASERRIREN KOOPERATIBA

Billabonako, Asteasuko eta Getariako hiru baserri ari dira momentu honetan Euskal Lupuloa proiektuan, eta eredu ekologikoan dihardute. "Munduko lupulu ekoizpen ekologikoa ez da %1 izatera ere iristen". Leondik ekarritako hainbat barietaterekin probatzen hasi ziren, eta aldi berean Kataluniako lupulu ekoizle ekologiko bat ezagutu eta harekin elkarlanean hasi ziren. Egun 22 lupulu barietate dauzkate, eta urtero bizpahiru berri ekartzea dute asmo.

Prozesu osoa beraiek egiten dute: landareak ekoitzi, lupulua lehortu, *pellet*-a egin eta merkaturatu. "Gure artean sarea sortzea izan da asmoa: baserri bakoitzak egiten duen lanaren arabera banatzen ditugu uzta bukaerako irabaziak". Lehen hiru urteetan ez du irabazirik ematen landareak eta inbertsio dezentea eskatzen du: zazpi metroko altuera hartzen du, eta zutabeak eta kableatua jarri beharra dira. Zailtasunik handiena, ordea, zertifikazioaren alorrean izan dute: "Traba asko izan ditugu lupulua zertifikatzeko. Enpresa handiak monopolioa duenez, haien bidez saltzea nahi zuten. Azkenean, kostata, baina lortu genuen hemengo laborategi batek gure lupulua zertifikatzea". ●

Jon Miranderen *Haur besoetakoak* MENDE ERDIA

1959an idatzia, argitaratzeari uko egin zion Koldo Mitxelenak Egan aldizkarian eta liburuak ez zuen harrezkero argitaratzeko zirrikiturik ikusi, harik eta 1970ean Lur argitaletxeak publikatu zuen arte, Gabriel Arestiren eginahalari esker. XX. mendeko euskarazko lanik seinaleenaren zoria izan genuen.

MIEL A. ELUSTONDO

Martxoko egun bat zen. Sartaldetik zetorren haizeak, itsasoko oihartzunen ekarle, makur-erazten zituen pareko zuhaitz ilunak sala-leihoaren aurrean; intzirika ari ziren, eta iharrosten ziren ontzi-mastak izan bailirakeen ekaitz baten jostagailu". 1970eko argitalpenaren hasiera dugu, Gabriel Arestiren eskutik irakurleari heldu zitzaiona, eta ez, zuzen, Jon Mirandek berak 1959an egindako jatorrizko bertsioa, gipuzkeraz idatzi baitzuen egileak eta, handik hamar urtera, euskara batuaren zinezko eredura ekarri baitzuen Arestik. Hamar urte zituen iraganak bere *ipuin-berria* ezin argitaraturik, eta, ordurako, guztiz etsiak joa zen Mirande: idatzi zuen garaian argitara zezaten gogoz saiatuagatik ere, ez zuen lortu. Eta, halako batean, argitaratu ziotenean, gogogabetua zen Mirande, Norbert Tauer adiskideari 1970ean bertan idatzi zionez: "Ene *Haur besoetakoa* gustatuko ahal zaizu... ba du aspaldi handia idatzia nuela, eta argitaltzale bati eman nion bainan, azkenekotz, ez nuen nahi argitara dezan. Baina bego hortan, argitara den ezkero".

ARGITARATZEKO EZINA

Mirandek Yon Etxaide adiskideari 1959ko lehen hilean, gutuna: "Ipuin-berri bat asi dut; poetikozki egin nai nuke, gaiaren lizuntasuna estaltzeko ez naiz ziur, ordea, publikatuko didatela". Hasiak egina dirudi, beste behin. Urtarrilean idazten hasi zena, kasik burutua zuen ondoko hilean, Txomin Peilleni jakinarazi zionez. Biak paristar arren, lotura estua zuten gutunez: "Aipatu nizun ipuina bukatuxerik dut –garbitan ipintzen ari naiz orain–, eta amar egunen bururako egiñik duket. Luze samarra da –*Alos-torrea*-ren heinekoa gutxi gora-beera–, eta gaia oso berezia: maitasun-kondaira bat, 30 urteko gizon baten eta 11 urteko nexka baten elkar maitatzea kondatzen duena, ots, euskerazko *Lolita* bat (naiz ez dudan zoritxarrez V. Nabokoen lanegiña irakurri aal izan). Mitxelenari bi itz esan diot hortzaz, eta erantzun dit aldizkarian publikatzeko alegiñak egingo dituela. Bainan beldur naiz ezin ditekeala, zati

zenbait aski erotiko baitira –naiz funtsez oso garbi eta sentimentala den". Mirandek, idatzi orduko helarazi zion testua Peilleni. Honek, berriz, oharrak egin zizkion, bata bestearen lanak irakurtzen eta, hobe beharrez, zuzentzen jarduteko ohitura edo usantza baitzuten. Eta Peilleni "inpresio zerbait" egin zion Miranderen lanak, eta oharrak egin ere zizkion. Eta Mirandek: "Ikusi duzun bezela, ez da batere pornographiazkoa kondaira bat... bainan, halaz ere, bildur naiz gaitz izango zaidala nonbait publika eraztea. Andima'ren [Ibiñagabeitia] bidez, agian, [Koldo] Mitxelenak'k ezin egin ba dezake". *Egan* literatur aldizkarian, alegia, Mitxelenak zuzentzen baitzuen.

Peilleni eta Mitxelenari bezala, Andima Ibiñagabeitiari ere bidali zion *Haur besoetakoa*. Iritzi eske, oroz gain, Andima izan baitzuen "gidaria euskal-literaturako bideetan". Ez zaio ari, haatik, bakarrik hizkuntzaren gainekoak zuzen diezazkion: "Gaiari buruz ere zure iritzi egiazkoa jakin nai dut: maitasunezko ipuin-berri bat da, bai, maitasun bat besteak ez bezalakoa dut gaitzat aukeratu. Konformistek eta ergelek esango lukete, noski, abnormal den maitakeria bat kontatu dudala (naiz heterosexualitatearen alorrean egoteko aski konformista egon naizen!). Dena dela, eta erotismo utsak leku gutxi euki arren ene ipuinean, psykologiazkoa baita ororen gainetik, ez dut uste Euskaldunek abegi onik egingo diotenik, gaiaren berritasuna dela kausa".

MITXELENA, IBIÑAGABEITIA, IRIGARAI

Egiazki, 1959an Jon Mirandek ez zukeen bere ipuin-berri hura argitaratzeko nahi beste biderik. Ordurako, eta besteak beste, *Euzko Gogoa* eta *Egan* aldizkarietan publikatu ohi zituen literatur lanak, hala olerkiak nola itzulpenak eta saiakera laburrak, eta, aukeran, *Egan* aldizkaria lehenetsi zuen, kezka haiek bizi zituela. Ibiñagabeitiari ari zaio: "Mitxelenari igorri nion eia *Egan*'en argitara erazi nai zuenetz, edo beste nonbait, liburuxka baten forman, zentsurari iges egiteko bide bat arki baleza. Ez dit oraindik jakin erazi zerbait arkitu duenetz; zail baino zaillagoa izango dela irudi erazi dit ordea. Zuk bearbada Amerika horietan publikatzeko bide bat atzeman zenezake?".

Jon Mirande beldur, argitaratuko ez zioten kezkatan, garaiko euskarazko literaturaren mugak estu eta meharrak zitzaizkiola jakitun. Urte bereko martxoko gutuna da, Mirandek Peilleni: "Mitxelenaren guthun bat hartu berri dut (...); goraiphuak egiten derauzkit ene *ipuin-berria* gatik bainan ezin publika eraz dezakeela borobilki erraiten deraut... bertzela *akabo aldizkaria*". Mirande saiatu zen, bere lana argitara ziezaioten. Mitxelenak ezetz, Ibiñagabeitiak ere ez zuen lortuko... "[Aingeru] Irigaray'ek ere idatzi deraut, eta hari ere gustatu omen zaio; bainan ezin publika ditekela hark ere diost. Hainbat gaixto euskal publikoarentzat!".

> "Bildur naiz gaitz izango zaidala nonbait publika eraztea. Andima'ren bidez, agian, Mitxelenak'k ezin egin ba dezake"
>
> **Jon Mirande, 1959**

Hamar urtean ezin izan zuen *Haur besoetakoa* argitaratu, euskarazko literaturaren eragileen baitako zentsurak isilarazirik. Esaterako, Yon Etxaideren *Joanak-joan* (1955), J.A. Loidi Bizkarrondoren *Amabost egun Urgain'en* (1955), edo Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eleberrien garaia zen. Haatik, ezin Miranderena argitaratu, frankismoaren zentsurak baino lehen ere, euskaldunak barneratua zuen zentsurak galarazi baitzion biderik urratzea.

Handik hamaika urtera Gabriel Arestik, Lur argitaletxearen eskutik, berriz ekin zion arte.

Jon Mirandek bere lanak bidali zizkion, 1974ko abenduan Txomin Peilleni idatzi gutunean jakin dugunez. "Mirandek bere poesia guztiak bidali zizkidan *Haur besoetakoa*-rekin argitaratzeko, baina, zoritxarrez, zentsura ofizialak baimena ukatu zidan". Olerkiak eta *ipuin-berria* argitaratzea ukatu zentsura ofizialak. Hala ere, *Haur besoetakoa* argitaratzeko zirrikitua egin zuen, nonbait, noizbait, bilbotarrak.

1970, GABRIEL ARESTI

1969an Bizkaiko Probintzia Ordezkaritzan aurkeztu zuen Arestik Miranderen testua, eta baia jaso hamabost egunen buruan. Gaztelaniatik euskarara ekarria dugu zentsorearen baimena: "Nobela dramatikoa. Mutilzahar edale bat bere besoetakoaren kargu egin zen, hura zurtz gelditu eta. Ezkontitza emana zion emakume bati. Eta hortxe hasi zen drama, ikaragarri maite baitzuen [mutilzaharrak] besoetakoa, eta honek ere ez zuen nahi bere aitabitxia ezkon zedin. Bestalde, gizonak ere ez zuen ezkondu nahi, baina, bestalde, ez zuen kunplimenduz emandako hitza jan nahi eta emakume hari eragindako ilusioak zapuztu. Ez du ezer inmoralik ez politikorik. Baimendu daiteke".

1969ko abenduan baimendua, 1970eko abuztuan argitaratu zuen Lur argitaletxeak *Haur besoetakoa*, Arestik Miranderen 1959ko gipuzkeratik batuaren estandarrera egokitua. "Nobela hau bere lehenbiziko redakzioan gipuzkera osatuan zegoen idatzirik; baina autorearen baimenarekin, eta egungo tendentziei jarraikitzeagatik, editoreek euskera batu eta orokorrera itzuli dute, Batasunaren Kutxan agertzen diren erregelak errespetaturik". Batasunaren Kutxa, izan, euskal idazleen batasunaren aldeko zina dugu.

Euskara batura ekarria *Haur besoetakoa*, besterik da Arestik hartu zituen lizentzia ez-poetikoak hartuko ote lituzkeen zuzentzaileak oraingo egunean. Ororen gainetik, toka eta noka erabilaraztea 11 urteko neskatikoari, 30 urteko gizonari. Beharrik, askoz lizentzia ez-poetiko makurragoa baliatuko zuen Eduardo Gil Berak *Haur besoetakoa* gaztelaniara *La ahijada* eramanik, narratzailearen jatorrizko hirugarren pertsona, lehen pertsona egin baitzuen bere itzulian.

Eta argitaratzean ere, oharra irakurleari argitaratzaile Arestik *Anaitasuna* -ren orrietatik: "Gaiari buruz, berriz ere, euskaldun prestu, ongi-pentsatzaile eta kristauari hain izugarri iruditzen bazaio ere, begirik miopeenak ikusi beharko du amodio horiek ez direla lizunak, haragiaren grina desordenatu eta desonestoak ez duela bertan lekurik hartzen, libidoaren indarra absente dagoela bertatik, gure erromantikoen denbora zaharretan mendi-mendian Mirentxu eta Maitena baten amodioak ez zirela garbiagoak izan; azkenean amodio horrek

"ZATI ZENBAIT ASKI EROTIKO BAITIRA"

"Theresaren gainean makurtu zen berriz eta aurpegia ingura-erazi zion beraren aldera, baina haurrak begiak itxirik zeduzkan eta harnasa lodiegiten zuen; lo-erazgarri indartsuari esker, ez zen esnatuko... Izara eratsi zuen: Theresa haurrak bezela lo zen, gorputxoa konkorturik, belaunak gora eraikirik. Gizonak besoetan hartu zuen, lehen baino bortizkiago laztandu zuen haren gorputz guztia pijamaren gainetik, musu bat eman zion bekokian eta, apur bat lotsaturik hala ere, hasi zen pijama-botoiak laxatzen. Baina haurra biluzik gelditu zenean haren besoetan, sukar batekin estutu zuen bere gorputzaren kontra. Haren bihotzaren taupadak orduan, haren odolaren bultzakada eskuak neskatoaren larru eztiaren gainean iragan erazten zituelarik...! Ohe-gainean pausatu zuen atzera, bere luzean, hobeki begira ahal ziezakeon edozer baino laketago zuen gorputz horri".

Haur besoetakoa, Jon Mirande, lehen atala

gorputzez bere burua eta amaiera hartzen baldin badu, funtsean sinbolo bat dela, errebeldiazko azken garrasi zoro bat, gizarte intolerante baten kontrako aldarri desesperatu bat. Eta Miranderen liburutik har dezakegun ikaskizun harrigarriena, hau da: obra hau, libertateari eskainitako kantu bat dela; gezurra badirudi ere. Munduko hippiek inposiblearen bazterretan libertate amesgarri horri dedikatutako abesti eder, gaitz eta ezin bat. Hitz bitan esan beharko bagenu *Haur besoetakoa* zer iruditu zaigun, honela esanen genuke dela: ikaragarritasunean mamitutako edertasun inposible bat".

Gisa horretara ikusi zuen argia Miranderen *ipuin-berri* hark. Aukeran, berandu, egilearenetik beretik idatzi dugunez gorago: "Ba du aspaldi handia idatzia nuela, eta argitaltzale bati eman nion bainan, azkenekotz, ez nuen nahi argitara dezan. Baina bego hortan, argitara den ezkero".

Eta, argitara denez gero, irakur dezagun.

'IPUIN-BERRI'

Eta irakur dezagun *Haur besoetakoa* ez geure begi miope eta erretina galdutakoetatik bakarrik, baina idazleak berak eskaini dizkigunetatik ere, *ipuin-berri* edo *nouvelle* bezala, Jon Mirandek ibili zuen bide mortu hura berria baitzen euskarazko literaturan. Mirandek ez zuen eleberririk, nobelarik nahi izan, *nouvelle*-a baizik. *Haur besoetakoa*-ren modernitateaz –modernitate ukatuaz– tesia egina duen Amaia Elizalde Estenaga EHUko irakaslea dugu argi-emaile

> "Garrantzitsua da Miranderen idazlanaren sinboloei arretaz erreparatzea, bai eta sinbolo hauek modernismoaren klabean irakurtzea ere"
>
> **Amaia Elizalde Estenaga**

gatazkaren puntu honetan. "[*Nouvelle* edo *ipuin-berri*] Genero hori eta eleberri laburra ez dira erabat baliokideak, *nouvelle*-ak bere ezaugarri propioak ditu". Intentsitatea, elementu sinbolikoak baliatzea, gogoeta filosofiko-psikologiko eta existentzialistak egitea... berezkoak zaizkio *nouvelle*-ari, Miranderen asmoko ipuin-berri-ari, alegia. Generoak Alemanian dituzke sustraiak, nahiz aski arrakasta handia izan zuen Frantzian. Amaia Elizalde Estenagarenak dira hitzak: "Generoaren berezitasunak kontuan hartu eta garrantzitsua da Miranderen idazlanaren sinboloei arretaz erreparatzea, bai eta sinbolo hauek modernismoaren klabean irakurtzea ere, mugimendu horren eragin zuzena baitu. Testuan bertan iradokitzen zaio irakurleari irakurketa sinbolikoa egin beharko duela testuaren zentzua ulertzeko, behin eta berriz azpimarratzen baita Theresa sinbolo bat dela". Sinboloek Miranderen *nouvelle*-an duten kargaz ohartu gabe ezin geureganatu idazle finaren testu ederraren urregorritasuna.

Jakinaren gainean zen Jon Mirande bera ere, *happy few*-entzat idatzia zuela esan zuenean.

Hautatuentzat.

Alabaina, milaka izan ditu, eta izanen, irakurleak Mirandek, eta *Haur besoetakoa*-k, sekula sekulotan.

"Ba zirudien giza-bihotz baten amets maiteena, ontzi-irudi haietara emanaz, urrutira eramanen zutela, beti urrutirago amets orok loratze ta betegintzarre duen ugarte doatsuetaraino...". ●

Ander eta *80 egunean*, harro eta apurtzaile

Landa eremuko baserritar tradizional homosexuala batetik, emakume edadetu lesbianak bestetik, hainbat tabu jarri zituzten mahai gainean *Ander eta 80 egunean* filmek. Hamarkada bat igaro den arren, tamalez gaurkotasun bera dute istorioek eta hainbatentzat kultuzko film dira dagoeneko. Harrotasunaren Eguna aitzakia hartuta, bi harribitxi horietako aktore eta zuzendariekin aritu gara eta zinemak LGBTI+ gaiak eta pertsonaiak pantaila handian nola irudikatzen dituen izan dugu hizpide, besteak beste.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

2009an estreinatu zen *Ander*, Roberto Castón galiziarrak zuzendua: euskal landa eremua, baserria, tradizioa, familia, homosexualitatea... Gai horiek uztartzen ditu sentsibilitate handiz, eta ederra da istorioaren bilakaera, hasierako familia tradizionaletik bukaerako familia eredu berritzailera –ez dugu gehiago zehaztuko, *spoiler*-ik ez egiteko–. Urtebete geroago ikusi zuen argia Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga zuzendarien *80 egunean* filmak, adineko bi emakumeren arteko sexu erakarpena freskotasunez kontatzen duen lana. Ordura arte euskal zinemak jorratu gabeko gaiak pantailaratu zituzten eta helburu horixe zuela adierazi digu Castónek: "Aurretik egina ez zegoen pelikula egitea". Erreferenteak ekarri zizkioten jendeari, eta arrastoa uzten joan dira batengan baino gehiagorengan. Josean Bengoetxea aktorea *Ander* filmeko protagonista da, eta jendea hunkituta hurbildu izan zaiola kontatu digu: "Oraindik ere idazten didate batzuek, esanez bai pelikulak bai pertsonaiak lagundu egin dietela, behar zuten bultzadatxoa eman dietela armairutik ateratzeko, edo istorioak asko emozionatu dituela".

> "Oraindik ere idazten didate, esanez pelikulak eta pertsonaiak lagundu egin dietela, behar zuten bultzadatxoa eman diela armairutik ateratzeko"
>
> **Josean Bengoetxea**

Batak zein besteak harrera beroa izan zuten estreinaldian, kopuruz baino gehiago, ikusleen erreakzioei erreparatuz gero. *80 egunean*-ek ez zituen zine-aretoak bete eta *Ander* ez zen Espainiako Estatuan komertzialki estreinatu ere egin –"banatzaileak ez dira oso ausartak", dio Castónek–, baina kurioski, biak izan ziren mugak gainditu zituzten lehenengo euskal filmak, nazioartean herrialde askotara iritsi direlako. Hastapenetan 120 jaialdi baino gehiago bisitatu zituen *80 egunean*-ek, eta oraindik asko mugitzen da batetik bestera. *Ander*-ek ere bere bidea egin du pixkanaka, eta Filmin-en ikus daiteke jada; "hemen estreinatu ez izanaren arantzatxoa gainetik kendu ahal izan dut azkenean".

> "Sarri, heterosexualei atsegin suertatzeko grina handiegia ikusten dut filmetan: 'Homosexuala baina txintxoa naiz' moduko pertsonaiekin eta publiko jakin bat deseroso sentiarazi dezaketen eszenak saihestuz"
>
> **Jose Mari Goenaga**

Gainera, kultuzko filmetzat ditu hainbatek. *80 egunean* sutsuki defendatzen duen jendea dago, oso berea sentitzen duten filma delako, asko maite dutena. "Batzuentzat oso film berezia da eta nabaritzen dugu, ez da beti lortzen eta polita da", onartu digute zuzendariek. *Ander*-ek ere txundituta dauka ikusle ugari; deskubrimendua izaten da lehen aldiz ikusten duenarentzat, dio Bengoetxeak.

EZ DA EZER ALDATU HAMAR URTETAN?

Roberto Castónen iritziz, hamarkada bat ez da hainbeste urte, gizartea aldatzeko. Edonola, elkarrizketatuek garbi dute pelikulak gaur bertan estreinatu ahalko liratekeela, istorioko beldurrak eta tabuak berdin-berdin jorratu daitezkeela, eta esanguratsua da hori. "Aurrerapausoak ematen direla eta homosexualitatea gero eta normaltasun handiagoarekin bizi dugula iruditzen zaigu sarri, eta hein batean hala da, baina aldi berean irakurketa triunfalistegiak egiten dira maiz, errealitatearekin bat ez datozenak: hainbatek dio aldarrikatu beharrik ere ez dagoela, normaltasunez bizi duela jendeak bere sexualitatea... eta ez da egia. Eskolan, bullyinga egiteko arrazoi nagusienetakoa izaten jarraitzen du, eta hainbat diskurtsotan ere garbi ikusten

da aurrerapen batzuk zein hauskorrak diren, zein erraz gal daitezkeen lortutako espazio eta eskubideak. Horregatik, oraindik ere halako istorio eta pertsonaiak beharrezkoak dira", azaldu digu Jose Mari Goenagak.

LGBTI PERTSONAIAK, TRAGEDIARA KONDENATUTA

Zinemaren historian atzera egiten badugu, badirudi drama eta tragedia dela LGBTI pertsonaien patua. Ados daude elkarrizketatuak, eta Jon Garañok dio horregatik saiatu zirela *80 egunean* ez zedila istorio iluna izan, film argitsua baizik, komedia trazekin. Barrearen aldekoa da Josean Bengoetxea ere, "umorea arma boteretsua delako istorioak kontatzeko eta aldarrikapenerako. Ez naiz komedia friboloaz ari, pentsarazten dizun umoreaz baizik. Asmatuz gero, umore horrek uzten duen lorratza oso indartsua da".

> "1980ko hamarkadara arte, LGBTI pertsonaien historia zinematografikoa tragikoegia izan da, eta ez zuen horrela izan behar, zinemak lagundu behar zuen horrela ez izaten"
>
> **Roberto Castón**

1980ko hamarkadara arte, LGBTI pertsonaien historia zinematografikoa tragikoegia izan dela iritzi dio Castónek, eta ez zuela horrela izan behar, "zinemak lagundu behar zuen horrela ez izaten, baina zinema negozioa da eta gizartearen pentsamendu ororkorrari lotuta mugitzen da. Pertsona gay, lesbiana, transexualak... hiltzen edo beren buruaz beste egiten gehiegitan bukatu dute pantailan".

Bi muturrak aipatu dizkigu Goenagak: gaia seriotasunez jorratu nahi izan denean tragikotasunera jo dela maiz, eta bestela parodiara. "Bai bata, bai bestea, klixeak iruditzen zaizkit, ez istorioak ezin direlako horrelakoak izan, beste modu batera ere izan daitezkeelako baizik".

> "Saiatu ginen *80 egunean* ez zedila istorio iluna izan, film argitsua baizik, komedia trazekin"
>
> **Jon Garaño**

FILM PROBOKATZAILEAGOEN FALTA

Gaur egun bizi dugun telesailen masifikazioan, LGBTI pertsonaia gehiago eta horiek irudikatzeko modu anitzagoak aurki daitezkeela esan digute, nahiz eta oraindik estereotipoetatik ere elikatzen den fikzioa. "Azken finean, zinema eta artea gizartearen eskutik joan ohi dira, eta gizartean normalizatuta ez dagoenez, zineman ere oraindik topikoetara jotzeko joera dago", dio Bengoetxeak.

Jose Mari Goenagak galdera jaurti du: LGBTI kolektiboaren errepresentazioan aurrera egin dugu ala estereotipo berriak sortu ditugu? Izan ere, duela hamarkada batzuetako hainbat pelikulatan pertsonaia ausartagoak aurkitu daitezkeela nabarmendu digu. Horri lotuta, LGBTI gaia ukitzen duten lanetan mundu heterosexualari atsegin suertatzeko grina handiegia ikusten du sarri: "Heterosexualei zuzendutako filmak dira, 'begira, guk ere sentimenduak ditugu' aldarrikatu nahian, eta publiko jakin bat deseroso sentiarazi dezaketen eszena, ekintza eta jarrerak saihesten dira. 'Homosexuala baina txintxoa naiz eta baloreak ditut' moduko pertsonaiak ikusten ditudanean, filmak probokatzaileagoa izan behar lukeela pentsatu ohi dut".

Ez alferrik, LGBTI pertsonaiei lotutako filmak gomendatzeko eskatu diegunean, *L'Inconnu du lac* aipatu digu Goenagak, besteren artean: sexuaren mesedetan asko arriskatzeko prest dagoen jendea eta *cruising*-a bezalako gaiak lantzen ditu film frantziarrak, eta elkarrizketatu batek baino gehiagok gomendatu digu gainera. Zerrendara gehitu dituzte baita ere *Brokeback Mountain*, *Carol*, *La Vie d'Adèle*, *Girl*, *Portrait de la jeune fille en feu*, *Hedwig and the Angry Inch*, *Una mujer fantástica* eta *Kausarik gabeko errebeldea*. Azken pelikula horrek ez du esplizituki homosexualitatea aipatzen, baina James Dean-en pertsonaia nerabe homosexuala dela dioen irakurketa egin izan da. Telesailen artean, beste pare bat proposamen: *A very English scandal* eta *Hollywood*. Gomendioak aintzat hartuta, harrotasunez jantzitako zinema ona ikusteko erronka ezin hobea jarri digute uda honetarako. ●

Txinatar jatetxeak ia mila urte zabalik

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Txina, XI. mende amaiera. Kaifeng, Song dinastiaren garaian Txina iparraldeko hiriburua, goren aldian zegoen. Merkataritza eta industria gune garrantzitsua zen eta 600.000 edo 700.000 biztanle inguru zituen; une horretan munduko hiririk populatuena izango zen ziur aski. Hangzhou, hegoaldeko hiriburua, ez zen hain handia, baina hazten ari zen, eta hurrengo mendean, Kaifeng gainbehera etorri zenean, hark hartu zion erreleboa. Bi hirien arteko merkataritza jarduera oso bizia zen. Lehenago ere baziren ostatuak, tabernak, burdelak... eta horietan merkatariek jateko aukera izaten zuten. Baina maiz ez zeuden ohituta tokian tokiko jakietara. Horregatik, kanpotarrei beren jaioterriko janari tipikoak prestatzen zituzten negozioak sortu ziren. Kaifengen hegoaldeko sukaldaritza eskaintzen zuten jatetxeak ireki zituzten eta Hangzhouen, iparraldeko janariak ematen zituztenak.

Berez, lehenengo jatetxeak Parisen XVIII. mendean sortu zirela esan ohi da, gaur egun daukagun jatetxe kontzeptua kontuan hartuta behintzat. *Restaurant* hitzak ere orduan hartu zuen egun duen esanahia; berez salda bat zen, baina 1780ko hamarkadan salda hura bertan hartzeko aukera ematen zuten lokalei *restaurant* esaten hasi ziren.

Dining Out: A Global History of Restaurants (2019) lanean, Katie Rawson eta Elliot Shore historialariek 1100 urte inguruan Txinako hiriburuetan sortutako negozioak jotzen dituzte lehenengo jatetxe modernotzat. Hasieratik jatetxeen eskaintza anitza zela diote: "Gaurko hiri askotan bezala, fideo postu batera edo dim sum jatetxe batera joateko aukera zuten, toki dotore garestietara edo chop suey lokal txikietara". Ore bilduak ematen zituen jatetxe erraldoi bat aipatzen dute, 50 labe baino gehiago zituena.

1126. urteko eskuizkribu batek jasotzen du Hangzhouko jatetxe ospetsu batean lehenengo aldiz joaten ziren bezeroei denetik mokadu bat dastatzeko aukera ematen zietela, egungo dastatze menuen antzera. Testu horren arabera, sukaldariei "eltzeetako maisu" esaten zieten eta oso azkar prestatzen zituzten platerak. Zerbitzariak gai ziren eskuetan hiruna plater eramateko eta platerak eskatutako ordena berean banatzeko, jatetxe dotore horretan behintzat.

Lehenengo jatetxeen jatorri izendapena Parisek dauka, baina duela ia mila urte propio janaria prestatu, zerbitzatu eta kontsumitzeko tokiak sortu zituzten Txinan. ●



ZHANG ZEDUAN

IBAIAN GORA QINGMING JAIALDIAN (1100. URTEA) IZENEKO PERGAMINOAREN ZATI BAT. ESZENA HONETAN, JANARIA EMATEN ZUTEN HAINBAT TOKI IKUSTEN DIRA.

SHANDONG UNIBERTSITATEA

2 cm-ko eta 13.000 urteko txoritxoa

Gizakiak egindako hiru dimentsiotako artelanik zaharrena 2007an Alemanian aurkitutako ia 4 cm-ko mamut baten eskulturatxoa da. 33.000 mila urte ditu. Kopuruan zein adinean, alde handia dago orain arte Europan eta gainerako kontinenteetan aurkitutako piezen artean. Esaterako, Asia ekialdeko eskulturarik zaharrena duela 4.500 urtekoa zen orain arte.

Baina Karbono-14 bidez 2005ean Txinako Lingjing aztarnategian aurkitutako 2 cm eskaseko pieza datatu berri dute eta milaka urte batzuetan atzeratu du aurreko marka: hezurrean landutako hegaztiak 13.000-13.800 urte ditu. Eta gainera, ezaugarri berezi bat dauka: orain arte ez da idulkia edo oinarria duen Paleolito garaiko beste eskulturarik aurkitu munduan. ●

LIBURUA

Ekilibristak badu sarea



BAZTERREKO AHOTSAK
MIREN TIRAPU GOIKOETXEA
SUSA, 2019

AMAIA ALVAREZ URIA

Euskal literatura garaikidean askotan ausardia falta sentitu dut, gauza berriak probatzeko gogorik eza, esperimentazioarekiko nagia. Hori bereziki gertatzen da nagusi den eleberrian, narratiban, funtzionatuko dutelako behin eta berriz erabilitako formulekin. Horregatik iruditzen zait oso interesgarria genero dramatikoan gertatzen ari dena, arte performatiboetan, euskal antzerki garaikidean (ekintzan zein testuetan).

Azken aldian badira Euskal Herri osoan soilik euskaraz eta kooperatiboki bide berriak urratzeko asmoarekin diharduten taldeak. Ildo hori jarraitzen du Miren Tirapu Goikoetxeak bere Beheko Larraine konpainiarekin. Jarraian duzue talde honen lehen bi lanak jasotzen dituen liburuaren gomendioa. *Atte hil aurretik* eta *Manifestu bat* dira bi lan horiek, liburuan, horiekin batera, Mireni egindako elkarrizketa aurkituko duzue.

Lehen lanaren sormen prozesua Maika Etxekopar Lougarotekin bizi izan zuen Mirenek. Bigarrenean aldiz, Gaizka Sarasolarekin. Pertsonaia gutxi dira batean zein bestean eta denak jokatzen ditu Mirenek. Lehenengo lanean Ane da protagonista, Maxux amonaren urratsak jarraitzen dituen harakina, krisi existentziala duen emakume heldua. Bigarrenean bufoi bat dugu, pertsonaia tragikomikoa, hilzorian dagoen eta bizitza ospatu nahi duen gizona-edo-pertsona.

Bi lan hauekin egin nahi izan duena da bildumari izena ematen dion "bazterreko ahotsak" biltzea eta ikusgarri egitea. Herritarren istorioei erreparatu nahi die bere taula gaineko egiteko modua bilatzearekin batera. Elkarrizketan jakingo dugu bere estiloa "gordin, zikin, bortitz, ilun, umoretsua" dela, eta ADEL topaketa batean ezagututako jendeari esker piztu zitzaiola nafar honi bere bidea egiten hasteko irrika.

Izan ere, Aulestiko urteroko hitzorduari esker (ADEL topaketak) eta EHAZEren argitalpenei eta Susako Ganbila bildumari esker, gaurko euskal antzerkian, batetik komunitatea osatzen ari dira, eta bestetik dramaturgia berriak idatziz jaso eta zabaltzeko plataformak abiarazten ari dira. Esperimentazioarekin eta bilaketarekin hasten den bideak badu arriskutik eta bakardadetik, baina orain, baita elkar zaintzatik eta egindakoarekiko aitorpenetik ere. ●

MUSIKA

Euskal Herriko pianistak

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ekainaren 17an Arriaga Antzokiak oihala altxatu zuen, pandemiaren ondorioz hiru hilabete itxita egon ondoren. Eta irekiera horretan Joaquin Achúcarro pianista handia izan zen protagonista. 87 urteko artista bilbotar eta unibertsal hau baino hoberik ez dago hiriko bizitza musikala berrabiarazteko.

Benetan miresteko moduko musikaria da. Ibilbide bikaina, luzea eta ondo planifikatua izan du. Kontzertu, sari eta grabazioez gain, pedagogian aritzeko astia izan du, eta horretarako, gainera, dohain berezia du. 1990etik irakasle da Dallaseko Unibertsitate Metodistan, baina segitzen du kontzertuak ematen han eta hemen. Laburbilduz, langile handia da, eta ziur aski ezaugarri hori da bere energia eta distiraren sekretua.

Figura honetan pentsatzean, jakina, bere emaztea gogoratu dut, Emma Jiménez, pianista aparta bera ere, bilbotarra Achúcarro bezala, eta ibilbide lasaiagoa duena, ziur asko Achúcarroren indarrak eklipsatua.

Eta horrek guztiak Euskal Herrian izan dugun eta dugun piano-jotzaileen harrobi handia aztertzera eraman nau. Lerro hauen bidez, gure herriko eskola pianistiko bikaina aldarrikatu nahi nuke, estilo ezberdineko eta maila handiko musikariek osatua. Ez ditut denak aipatuko espazio kontuagatik. Barkamena eskatzen dut. Baina aipatuko ditut bereziki distiratsuak direnak, edo hain ezagunak izan gabe, zalantzarik gabeko talentua dutenak.

Ricardo Requejo irundarra duela bi urte eskas hil zen. Piano-jotzaile bereziki zorrotza izan zen bere buruarekin, baita irakasle karismatikoa eta bere ikasle ugariek gurtua ere. Beste piano-jotzaile batzuk irakasle nabarmendu ziren, hala nola Mª Carmen Ocáriz tolosarra eta pianoaren 'neskato miragarria', eta Juan Padrosa, jaiotzez katalana baina bere lanbidea Donostiako kontserbatorioan garatu zuena, aurrekoak bezala. Padrosak grabazio interesgarriak egin zituen, eta oso estilo pasional berezia zuen, gainerakoetatik bereizten zuena.

Eta nork ez ditu ezagutzen Katia eta Marielle Labèque ahizpak? Baionan jaiotako piano-jotzaile hauek ospe unibertsala dute, piano bikote garaikide ospetsuenetako bat direlako. Agertzen diren toki guztietan mira pizten dute, beren arteagatik eta eszenaratze bikainagatik. Beste bikote erakargarri bat Maria Jose Barandiaranek eta Maria Jose de Bustosek osatzen dute, irundarrak eta oso zorrotzak beren errepertorioaren aukeraketan.

Amaitzeko, bi bakarlari bikain aipatu behar ditut: Marta Zabaleta legazpiarra, eta Miguel Ituarte, getxoztarra. Biak Musikeneko irakasleak dira eta gure herrialdeko egungo piano eskola oneneko ordezkariak.

Ikusten duzuenez, asko dago aukeratzeko. ●

ENRIQUE MORENO ESQUIBEL / EUSKALDUNA JAUREGIA

Ezkerrean Joaquin Achúcarro, eskuinean María José Barandiaran eta behean Labèque ahizpetako bat.

Kontatzen duen herria ez da inoiz hilko

AMETS ARANGUREN ARRIETA

Donostian izan naiz asteazkenean, hiriko Giza Eskubideen Zinemaldiko hirugarren eta azken aurkezpenaren kari. Lander Garrok zuzenduriko *2 urte, 4 hilabete eta egun bat* filmaren aurre estreinaldia da, soldaduskari uko egin eta haren deuseztatzea lortu zutenen borroka kontatzera etorri den pelikula. Nire lehen ekitaldi postkonfinal eta intelematikoa. Ordua hurbiltzen ari dela egin dugu Antzoki Zaharrera eta Embeltran kale erdia okupatzen duen ilararen puntan jarri gara. Aurpegi ezagun eta ez hain ezagunak, bigarren hauek lehenengoek elkar nola agurtzen duten begira.

Jarri gara gure lekuetan, bi metrotara eta maskara soinean. 19:00tan hastekoa zen emanaldia ia ordu erdiz atzeratu dela ikustean oroitu naiz "Puntualitatea da etika iraultzailearen zutabe nagusienetako bat" txiokatzen zuela duela egun batzuk filma aurkeztera atera direnetako batek. Tira, merezi badu, barkatuko diogu.

2012an bota zuten 1990eko hamarkadan hainbeste gazte intsumituren bizitoki izan zen Iruñeko espetxea eta, jakin bezain pronto pentsatu zuen intsumituetako batek horixe zutela aukera kamera hartu eta azken irudi batzuk grabatzeko. Hori izanen zen ondoko zortzi urteetan gorpuztuko zuten pelikularen abiapuntu. Bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zieten hiltzen ikasi eta "gizondu" nahi izan ez zuten gazteei, 3. graduko zigorrari planto egin ondotik. Suhiltzailea, musikaria, irakaslea, lurrari loturiko aktibista eta kazetari bi dira kontakizunaren protagonistak, beste gazte askorekin batera intsumisioaren aldeko borrokan aritu ziren sei lagun. 25 urte dituzten ziega barneko ahots grabaketak, IRAko kideak eredu hartuz eginiko hotz grebako argazkiak eta ingurukoen lekukotasunak erakusten dizkigu dokumentalak, besteak beste. Sei lagun hauen ahoetatik kontaturikoaz haratago doa pelikula: ederki erakusten du emakumezkoek –ez bakarrik ama edo bikote zirenek– mugimendu anitzaren barruan izan zuten izugarrizko garrantzia, baita intsumisioaren borrokak egungo beste borroka batzuekin –hala nola feminismoarekin edo elikadura burujabetzarekin–, duen oinarri partekatua ere. Kontakizuna umorez eta emozioz janzteko gai izan da Garro, bietatik behar zen neurrian harturik eta biak behar bezala uztartuz.

Herri honetan desobedientzia zibil ez-bortitza berriz ere lehen lerroan jartzeko proposamena egiten du intsumisoetako batek, behar bezainbeste ospatu ez zen garaipen haren oinarri izan zela agerian utzi ondotik. "Kontatzen duen herri bat ez da inoiz hilko" idatzi du Twitterren protagonistetako batek eta arrazoi. Estreinaldia Iruñean izanen dela esan dit txoritxo batek eta edukiera erdiko garaiotan gabiltzala kontuan izanik... Bizkor ibili!

A! Eta lasai, berandu hasten bada ere merezi du, zinez... ●

EGILEA I **ANA ZAMBRANO**

Hitz gezidunak

Gaia: Lapurdiko kostaldea

- Haria biribilkatzeko pieza — Baretu, lasaitu
- Sinestedun — ...Vicious, punk
- Barkamen — Gatz gehiegi duena
- Frantsesez, kalea — Txiki
- **1** — Bueltan, inguruan
- **2** — Ongile
- Bidez — Gaztainondo ikatz
- Diru-zigor — Trebetasuna
- Dudarik gabekoa — Oroitu
- Musikatresnak tonuan jartzeko — Oholtza
- Landareak gara bota — Areto
- **3** — Errusiako enperadore
- Aurrizki: kontrakotasuna — Oihuak, hotsak
- Norbait — Putzu
- Egurrari forma eman — Hurbil
- Burusoil, karsoil — Begiaren eraztun
- Iridioaren ikurra — Kiloa
- Aberetaldea — **4**
- Erakunde itxia — Ixilik
- Erne — Ikastetxea
- Hamabi erromatar zenbakiz — Tona

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

				5			8	9
	5		7	2		1		
		9	3					
				8		5		
7	1							
			8			7		
		6	1					8
		2	6	9		4		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Mutxidura.
2. Ukamenak.
3. Txalupetako ohola.
4. Haur-oihal.
5. Beldurra, izua.

EBAZPENAK

5X5:
1. MUTXI
2. UKOAK
3. TOSTA
4. XATAR
5. IKARA

4	8	1	9	6	3	2	7	5
2	6	7	4	5	1	3	8	9
9	5	3	7	2	8	1	6	4
5	2	9	3	1	6	8	4	7
6	3	4	2	8	7	5	9	1
7	1	8	5	4	9	6	3	2
1	9	5	8	3	4	7	2	6
3	4	6	1	7	2	9	5	8
8	7	2	6	9	5	4	1	3

										B		F		B		R								
										S	O	S	E	G	A	T	U							
											B	I	D	A	R	T	E							
	A		B	I	D	E	Z	K	I										I		Z				
O	N	G	I	N		D	I	A	P	A	S	O	I											
	G	A	R	A	T	U		Z	I	B	U	R	U											
G	E	L	A		A	N	T	I		I	N	O	R											
	L	A	N	D	U		S	O	I	L		I	R											
H	U	R		E	L	I	A		S	E	K	T	A											
				B	I	A	R	R	I	T	Z													
					A	D	I		X	I	I													
				I	K	A	S	T	O	L	A													

Núria Vergés

ZIBERFEMINISMOA ALDARRI

SAREAREN 'FEMINISTATZEA'

"Betidanik interesatu izan zaizkit feminismoak eta emakumezkoen eskubideen aldarrikapena. 2001ean Munduko Bankuaren Bartzelonako gailurraren harira egitasmo tekno-aktibistek eztanda egin zutenean, komunikabideek zein akademiak kanpoan uzten zituzten emakumeak: ez omen ginen presente mundu digitalean eta ez omen zitzaigun interesatzen. Horregatik sortu genuen Donestech: komunikazio eta informazio teknologien eta generoaren inguruan ikertu, esperimentatu eta elkarrekin ikasteko".

"Askatasuna bermatzeko ezinbertzekoa da sistema teknologikoa despatriarkalizatzea"

Informazioaren Gizartean Doktorea eta Donestech kolektiboaren sortzailea da Núria Vergés (Igualada, Herrialde Katalanak, 1976). Zientzia Politikoak ikasi zituen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, eta Gizarte eta Politika Publikoen masterra egin zuen Pompeu Fabra eta John Hopkins unibertsitateetan. Bere lan ibilbidea emakumezkoen eta teknologia berrien inguruko harremanaren azterketan oinarritu du.

SAIOA BALEZTENA JORDI BORRÀS

Noiz eta nola jaio zen Donestech?
2006an gorpuztu genuen urtebete lehenago sortu zitzaigun ideia. Oker ez banago, amets moduko bat izan nuen, eta ernatzerakoan garai hartan elkarren artean ezagutzen ez ziren Alex eta Eva deitu nituen eta Bartzelonako Raval auzoan gelditu ginen hitz egiteko. *Feelinga* egon zen hiruon artean eta Katalunia mailako ikerketa bat planteatuz hasi ginen. Ordurako, modu batera edo bertzera teknologiaren aktibismo desberdinetan murgilduta ginen hirurok, eta generoaren eta feminismoen inguruan lan egiteko beharra elkarbanatzen genuen. Argi genuen emakume anitz ari ginela gauza interesgarriak egiten eta, nolabait, ikusezin bihurtzen gintuztela.

Zeintzuk dira zuen erronka nagusiak?
Bizitza bakar batean ase ezin diren erronka anitz ditugu, horregatik sarean lan egiten dugu sarri. Batez ere teknologietan emakume eta LGTBIQ* lagunek toki hobeagoa izan dezaten lan egiten dugu, genero inpaktu askatzaileen bitartez. Garapen teknosozialen abantailak betikoentzako izan ordez, guztiontzat izan daitezen. Orain, gehienbat, harreman digital aske eta seguruen alde lan egiten ari gara.

Generoaren eta teknologiaren inguruko hainbat ikerketa egin duzu. Zein toki dugu gaur egun emakumeok mundu digitalean?
Baikorra naiz, emakumeon tokia gorakorra eta emankorra dela erranen nuke, baina oraindik ere espazio garrantzitsuetan egoera minorizatua bizi dugu. Zentzu horretan, erronka da geroz eta gehiago izatea eta mundu digitalean baldintza hobeak lortzea. Horretarako ezinbertzekoa da generoa kontutan hartzea.

Emakumea askea da Interneten?
Zoritxarrez, oraindik ez. Baina Internetetik kanpo ere ez, emakumeak izate hutsagatik. Adibidez, sareko indarkeria matxistak sare sozialetan dugun askatasuna mugatzen du, eta

"GENEROAREN SOZIALIZAZIO ESTEREOTIPATUAREN BITARTEZ TEKNOLOGIKOA DENA, USTEZ, GIZONEZKOENA DA".

are gehiago, hainbatetan kanporatuta gaude, zuzenean edo zeharka.

Indarkeria matxistak aipatzen dituzu. Nola dago panorama?
Hagitz gutti hobetu da. Kasik ez dugu daturik ezta neurri eraginkorrik ere sareko indarkeriari aurre egiteko. Harrigarria bada ere, indarkeria matxista ezabatzeko erantzukizuna emakume eta feministoi egozten zaigu. Baina, erasoaren ardura erasotzailearena da. Gobernuek eta boterea duten plataformek bertze alde batera begiratzen dute eta euren gelditasunarekin sareko indarkeria matxista normalizatzen dute. Larria da *big data*ren aroan indarkeria matxistak diagnostikatu eta gure burua defendatzeko hain informazio gutti izatea. Egia da feminismoek lagundu dutela, baina bide luzea gelditzen zaigu oraindik.

Historikoki, zenbateraino izan da Internet gizonezkoen esparrua?
Ada Lovelace bezalako erreferenteak izan arren, gaur egun komunikazio eta informazio teknologien ikerketa eta lanetan txikia da emakumezkoen partaidetza –ez da horrela sare sozialetan–. Pribilegio, prestigio eta botere mundua delako batetik, eta indar kapitalista, kolonial eta patriarkalagatik bertzetik. Erranen nuke historikoki teknologiaren sarbidean emakumezkoen ezagutzak barrera formalak izan dituela eta gaur egun informalagoak direla. Baina bai, generoaren sozializazio estereotipatuaren bitartez teknologikoa dena, ustez, gizonezkoena da.

Google bezalako enpresa erraldoiek geroz eta informazio gehiago dute erabiltzaileen inguruan. Nola izan gaitezke askeak geure inguruko hainbertze informazio duen esparru batean?
Argi dago informazioa izateak boterea ematen diela gurekiko. Horregatik, boterea birpentsatu beharra dugu; askatzailea izan beharko luke, zapaltzailea izan ordez. Eta, zalantzarik gabe, askatasuna bermatzeko ezinbertzekoa da sistema teknologikoa despatriarkalizatzea. Geure datuen eta bizitzen inguruko autonomia eta subiranotasuna izaten hasi behar dugu, erantzukizun kolektiboaren bitartez.

Egingarria da, sistema honetan, emakumezkoentzat askatzailea izango den mundu digitala sortzea?
Errealitatea historikoki gutxiengoen mesedekoa izan den arren, geure zerumugak gehiengoa ase behar du. Eta, mundu digitala segurua ez den bitartean, elkarren arteko zaintza funtsezkoa da.

Baina, zein da zaintzaren gakoa?
Batzuetan atseden hartzea komeni da, maskarak edo babes gehiago erabilita, adibidez. Horretaz gain, garrantzitsuena modu seguruan eta zerbitzari ziurren bitartez nabigatzea da. Baina, noski, horrekin bakarrik ez dugu mundu digital seguru eta askerik lortuko. Garrantzitsua da, bitartean, zerumuga begiratu eta nahi dugun mundu digital hori eraikitzen hastea. Horretarako funtsezkoa izango da Internet *feministatzen* jarraitu eta eduki feministez betetzea, eta eduki horien eragina birbanaketa, justizia, eta askatasunari begira jartzea, iruditeria ziberfeministak amestuz eta sortuz. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Ertzaintzako ERNE taldeko agenteek adierazi dute VOX-en mitinetan lana egiteaz gain, publiko gisa parte hartu nahi dutela

"Ezin dugu faxismoa txalotzen dugun aldi berean faxistak bezala jendea jo" adierazi dute eta Jaurlaritzari ordu libre gehiago eskatu dizkiete. ●

Donostiako haurrek konfinamendua egin beharko dute Woody Allen Zinemaldian egongo den bitartean

Gainera, udala aztertzen ari da Jose Ignacio Munillaren ordutegiak eta haurrak kalean egoten direnak desberdintzea, pederobirusa gehiegi zabaldu ez dadin. ●

CIAk desklasifikatutako dokumentu berri baten arabera, Franco sozialistagoa zen Felipe González baino

Dokumentu berak beste zenbait sekretu ezagutarazi ditu, adibidez, Xabier Saldiasek bibotea daukala. ●

Amul been nit ku leegalul
inor ez da ilegala

ARGIA

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diezu **Mbolo Moye Doole**ren erresistentzia kutxari eta **Argia**ri.
Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

15€*
KAMISETAK

8€*
POLTSAK

14€*
PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT
LIBURUA

24€*
JERTSEAK
4 KOLORETAN

Eskaerak egiteko sartu: **AZOKA.ARGIA.EUS** edo deitu **943 37 15 45** telefonora

*Bidalketa gastuak 4€

INPRENTA
Offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO **GRAFIKOA**

Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!

ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK

www.antza.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus